



OÑATI
dabilen herria

LGTBIQ+
diagnostikoa

Oñatiko LGTBIQ+ diagnostikoa



Aurkibidea

1.	Sarrera	4
2.	Marko teorikoa	6
2.1.	Heteropatriarkatua. Zer da?	6
2.2.	Sexu-genero sistema	6
2.3.	Heterosexualitatea erregimen politiko gisa	7
2.4.	LGBTIQ+ siglak: garrantziko fikzioa eta erresistentzia	8
2.5.	Aniztasuna argitzen	9
2.6.	Zentzugabeko falazia: LGTBQI+a hiritarra da	10
2.7.	Oñatiko errealitatea: begirada soziologiko bat	10
2.7.1.	Demografia eta biztanleria-egitura	10
2.7.2.	Ekonomia eta lan-egitura	11
2.7.3.	Kultura eta identitatea	11
2.7.4.	Hezkuntza eta sozializazioaren guneak	11
2.7.5.	Komunitatea eta bizikidetzak	12
2.7.6.	Politika eta parte-hartze soziala	12
2.8.	Udal politika publiko ez heterosexualak	12
3.	LGBTIQ+ eskubideen inguruko araudia	14
3.1.	Nazioarteko arau esparrua	14
3.2.	Europar Batasuneko arau esparrua	16
3.3.	Espainiar estatuko arau esparrua	18
3.4.	Euskal Autonomia Erkidegoko arau esparrua.	20
4.	Metodologia	24
4.1.	Landa Lana	25
4.1.1.	Galdetegiak	25
4.1.2.	Elkarrizketak	25
4.1.3.	Eztabaida Taldeak	26
4.1.4.	Instituzioak	26
4.1.5.	Kontraste Espazioak	27
4.1.6.	Formazio Espazioak	27
4.2.	Talde motorearen beharra eta lidergoa	27
4.3.	Profilen Kodifikazioa	28
4.4.	Ohar Metodologikoak	28
4.1.1.	Hitz terminologikoak	28
4.1.2.	Interseksionalitatearen beharraz	29
5.	Emaitzak	32
5.1.	Herriaren idiosinkrasia	33
5.1.1.	Tradizionala eta kontserbadorea	33
5.1.2.	Familia nuklearrekoa	34
5.1.3.	Ederra, maskulinoa eta beti dotore	36

5.1.4.	Benetako gizon perfektua	38
5.1.5.	Industrialak	40
5.1.6.	Kirolaria	44
5.1.7.	Aktiboa	47
5.1.8.	Euskaltzalea	51
5.2.	Zigorrak eta mugak	52
5.2.1.	Zurrunmurrak	53
5.2.2.	Seinalamentuak eta markapenak	54
5.2.3.	Autozentsura eta armarizazioa	55
5.2.4.	Homonormalizazioa	57
5.2.5.	Argaltasunaren presioa	57
5.2.6.	Sexilioa	58
5.3.	Estrategiak eta aliantzak	61
5.3.1.	Erreferenteak	62
5.3.2.	Bizitza sareak	62
5.4.	Plazera eta disfrutea	73
6.	Aurrera begira	66
6.1.	Memoria eta erreparazioa	66
6.2.	Espazioaren erabilera ez heterosexuala eta plazerra	66
6.3.	Tradizioaren haustura	67
6.4.	Genero normatiboaren deseraikuntza	67
6.5.	LGTBIQ+ politika publikoak egonkortzea	68
7.	Bibliografia	69

1 — Sarrera

Diagnostiko hau ez da soilik dokumentu tekniko bat. Ez da datu bilketa hutsa, ezta ekintza proposamenen zerrenda ere. Hau Oñatiko LGTBIQ+ bizitzen mapa emozional eta politiko bat da. Gure herriko kaleetan, lantokietan, eskoletan eta jaietan zehar bizitzaren eguneroko harietan txertatzen den errealitate konplexu baten irakurketa kolektiboa.

Txosten honek helburu bikoitza du. Batetik, Oñatiko herrian bizi diren LGTBIQ+ pertsonen esperientziak eta behar sozialak jasotzea, ikusgarri eta aitortuak izan daitezen; eta bestetik, udal politika publikoetan eta herriaren eguneroko bizitzan aniztasun afektibo-sexual eta identitarioaren aldeko neurriak modu iraunkorrean txertatzeko oinarriak jartzea. Horretarako, diagnostikoa hiru dimentsioetan kokatzen da:

- **Memoria eta bizipenak**, hau da, komunitateak historian zehar izan duen presentzia eta isiltasuna azaleratzea.
- **Egunerokotasunean topa ditzakegun praktika eta arau heterosexual zein disidenteen zenbaketa.**
- **Eraldaketa arako aukerak** eta herriaren balio eta egituretan aniztasuna txertatzeko bideak arakatzea.

Prozesuan zehar hainbat herritar, kolektibo eta eragileren ahotsak bildu dira. Bakoitzaren lekukotasuna ez da testigantza isolatu bat, baizik eta komunitate baten gorputz kolektiboaren parte, horien artean, bizitzak, desioak eta askapen formak herriaren historian txertatzeko ekarpena. Oñati herri aktiboa da, auzolanetik eta herri-mugimendutik ikasia; baina aldi berean, heteroarauaren eta tradizioaren pisuak baldintzatzen du oraindik gorputz eta identitate askoren bizigarritasuna. Horixe da diagnostiko honen abiapuntua: bizitza disidenteen duintasuna eta askatasuna erdigunean jartzea. Azken batean, txosten hau ez da soilik LGTBIQ+ kolektiboari buruzkoa. Herri osoarentzat egina dago, alegia, Oñati bizigarrirago, askatzaileago eta anitzago baten aldeko ekarpen kolektiboa da.



2 — Marko teorikoa

2.1

Heteropatriarkatua. Zer da?

Patriarkatua sistema konplexua da, indarkerian eta boterean oinarritzen dena eta testuinguru kulturalera eta une historikoetara egokitze gaitasun handia duena. Gainera, modu eraginkor eta estrukturalen jarduten du emakumeen eta LGTBQ+ pertsonen aurka, eta bereziki eragiten du pertsona migratu, arrazializatu, lodi, aniztasun funtzionala duten pertsonengan, edo bestelako opresio sistemen gurutzaketak bizi dituzten pertsonengan. Instituzioek sistema patriarkala ahultzeko erantzukizuna dute, politika publiko feministak eta ez-heterosexualak diseinatu, horrela, araez kanpo kokatzen diren subjektuentzat gizartea leku demokratiko eta bizigarriagoa bilakatuz.

Heteropatriarkatua bi dominazio sistemaren bidez antolatzen da. Batetik sexu-genero sistema eta bestetik, erregimen heterosexuala. Biak ulertzea ezinbestekoa da ikerketan zehar agertuko diren ondorioak eta kategoriak ulertu ahal izateko. Hauek bestelako dokumnazio sistema edo ardatzekin gurutzatuak agertzen dira.

2.2.

Sexu-genero sistema

Generoa eta sexua sozialki eraikiak dira. Simone de Beauvoir filosofoak 1949an idatzitako *Bi-garren Sexua* liburuan emakumea sozialki eraikia izan dela argudiatzen du, gizonaren mendeakoa izateko, zehazki. Menderakuntza hori ez da naturala, genero desberdintasuna betikitzen duten eraikuntza sozial eta kulturalaren emaitza baizik. Horregatik, "emakume ez da jaiotzen, emakume izatera iristen da". Beraz, **generoa ez da baldintza biologiko bat, baizik eta sozialki eraikitako identitate bat, emakumeei jaiotzetik inposatzen zaiena, eta botere desorekak eta diskriminazioa sortzen ditu testuinguru gehienetan..**

Beauvoirren nozioa hartuta, Gayle Rubin feministak sexu-genero sistema definitu zuen. Sexu-genero sistema, akordio multzo bat da, gizarte batek sexualitate biologikoa giza jardueraren produktu bihurtzeko xedapen multzoa, hain zuzen; non eraldatuak izan diren giza beharrak asetzen diren (1986). Sexu-sistemaren bitartez antolatuko da gure gizartea, eta balio multzoak banatuko dira genero eta sexuaren arabera. Hau da, emakumeentzako rola, zereginak eta izateko erak justifikatuko dira, baita gizonentzako rola, zereginak eta izateko erak ere. Bino-mikoak eta kontrajarriak izango dira gehienetan gainera. Batek boterea izango du (gizona), eta besteak, ordea, dominazioa (emakumea). Horietarik kanpo dagoena, beraz, bazterreko subjektu moduan aurkeztua da, subalternitate kriminalizatuak eraikiz (intersexuala, transa, LGTBQI+, ...). Izan ere, zapaldu-zapaltzaile logiketatik haratago baldintza ezberdinak ditugu eta honek aukerak sortzen ditu pribilegioei uko egiteko eta desabantaila egoeretan aurrean erresistentziaz jardun eta borrokatzeko.

¹ Feminismoa korrante ezberdinek osatzen dute. Horien artean, berdintasunaren feminismoa, desberdintasunaren feminismoa eta diagnostiko honen marko teorikoa kokatzen den feminismo materialista. Azkenari dagokionez, sexua eta generoak biak kulturalki eraikiak izan direla baieztatzen duen korrantea da. Modu egokiagoan azalduta, ez dira ez esentzialistak ezta biologikoak ere, horregatik gehitu ditugu aipua testuan.

Beauvoirrek eta Rubinek argi uzten digute generoa eraikuntza sozial bat dela, eta horri jarraiki, beste autore batzuek, Judith Butler (1990) edo Jule Goikoitxea (2021) esaterako, **biologian dagoen ikuskera esentzialistarekin apurtu behar dela** defendatzen dute. Alegia, generoa erritu eta praktika kultural jakin batzuen jarduera errepikatuaren bidez egiten eta frogatzen den zerbait denez, gorputzetan ezarrita egongo da (Butler); eta, gorputz horiek produzitu egiten dira, ez dira neutroak, baizik eta eraikiak (Goikoitxea).

Hortaz, ¹sexua eta generoa patriarkatuaren biziraupenerako gorputzen sexuatzeko prozesu berdinen markoan kokatu behar ditugu biak. Fintze aldera, gainera, beste hiru kontzeptu kontuan izan nahi dugu, ikerketa osoan erabiliko baititugu:

1. Genero identitatea: bakoitzak bere generoarekiko duen lotura, pertzepzio eta identifikazio maila da. Bi hitz erabiliko ditugu. Zisgenero (jaiotzean ezarritako generoarekin identifikatzen dena) eta transgenero (jaiotzean ezarritako generoarekin identifikatu ez, eta trantsizio prozesu bat abiarazi dutenak). Trans-en barruan sartuko dira jaiotzean ezarritako generoarekin identifikatzen ez direnak oro har. Esaterako, ez-bitarra, genero fluidoak etab.

2. Genero adierazpena: norberak bere genero identitatea adierazteko duen era (izena, estetika, ahotsa...).

3. Sexu-hobespena: Pertsona batek beste genero batetik, genero berdinekiko edo genero ezberdinekiko duen (edo ez duen) desira, ekarpen emozional, erromantiko eta sexuala da.

2.3

Heterosexualitatea erregimen politiko gisa?

Heterosexualitatea, orientazio eta praktika sexu-afektiboetatik haratago, erregimen politiko bezala ulertzen dugu. Alegia, desira indibiduala alde batera utzita, gizartearen antolaketa eta harremanak arautzen dituen sistema moduan definitzen dugu heterosexualitatea.

Monique Wittig izan zen heterosexualitatea erregimen moduan definitu zuena 1992. urtean. Ordena naturala erreproduzitzeko mekanismo gisa funtzionatzen zuela argudiatu zuen. Baina, zer da ordena naturala, eta zergatik izan daiteke kaltegarria LGBTQI+ pertsonentzako? Ordena naturala araua da, ona eta legítimo den hori, hegemonikoa eta ondo ikusia dagoena. Ordena hori, unibertsala bilakatuko da eta, hortaz, naturalizatu. Gizona, txuria, heteroa, klasea ertainekoa edo gorputz funtzionala izango dira ordena naturala. Kontran, hortik kanpo dagoen guztia kontraposizioan ulertuko dugu: periferikoa, subalternoa, zikina, gaiztoa. Guzti hori izango da emakumea, maskulinitate eta feminitate eredu hegemonikoekin bat egiten ez dutenak, arrazializatua, LGBTQI+ pertsonak, pobrea, aniztasun funtzionalean kokatua izan den gorputza eta abar. Ordena naturala kokatzen da testuinguru eta garaia araberak, eta birmoldatzen joango da bere erreprodukzioarako. Horregatik, bere biziraupena bermatzeko

mekanismoak garatuko ditu, indarkeriaren bidez (fisikoa, materiala eta sinbolikoa) eta normalizazio prozesuen bidez. Gizon eta emakume maskulinoak eta femeninoak sortu, familian nuklearraren baitan erreproduzitu, beste gizon eta emakume batzuk sortu eta, horrela, etengabe. Alegia, **heterosexualitatea ez da orientazio sexual bat soilik, ordena naturala (status quo -a) mantentzeko mekanismo biolentoa baizik.**

Homosexualitatea heterosexualitatearen kontrajartze eta dikotomia negatibo moduan kokatuko da, horrela, sexualitate txar eta onaren arteko eraikuntza sendotuz. Ondorioz, sistemikoa eta binomikoaz aparte, heterosexualitatea ere dogmatikoa izango da, emakumea gizonaren osagarri "natural" bezala ulertzen duen dogma, hain zuzen ere, erreprodukzioaren diskurtsoaren bitartez sostengatzen dena. (Lonzi, 1978).

Guzti hau kontuan izanda, **ezinbestekoa da heterosexualitatea modu politikoan ulertzea, horrela egingo diogulako aurre indarkeria eta zapalkuntza sistema gisa, kaletik zein politika publikoen bitartez.** Hau da, beharrezkoa da gizon eta emakume kategoriak modu politiko, irudizko, zein sinbolikoan desegitea Wittingek (1992) zioen bezala, ez daudelako bi sexu, "zapaltzailean den bat eta zapaldua" den bestea baizik. Hortaz, zapalkuntza da sexuak eraikitzen dituen eta alderantziz. Aurretik aipatu moduan, kapitalismoak bizirauteko zapaldu-zapaltzaile harremanak behar dituelako ezinbestean. Laburbilduz, norberaren desira indibidualetik haratago, heteroarauak produzituak diren bi sexuak antagonikoak eta ezinbestean osagarriak diren ideia sostengatzeko mekanismoa da, maitasunaren izenean, emakumeek dohainik zaindu, eta bizitza sostengatu dezaten.

2.4.

LGBTIQ+ siglak: garrantzizko fikzioa eta erresistentzia

LGBTIQ+ pertsonen inguruan hitz egiten dugunean, Brigitte Vasallok dioen moduan, komunitate bat baino gehiago, sigla jakin batzuen metaketaz hitz egin behar dugu. Pertsona heterogeneo eta askotarikoez osaturiko multzo bat da, eta sexu-disidentzian kokatzearen, elementu aglutinatzaile komunak dituzte -nahiz eta, gehienetan, sigla hauek osatzen dituzten kolektibo guztiak elkarrengandik bananduta egon-. **Azken finean, elkartuta hierarkikoki funtzionatzen duen zatikatutako taldea da.**

LGBTIQ+ pertsonak dituzten nahiak, helburuak eta estrategiak ere oso desberdinak dira. Hori bai, badute zerbait komunean: arauaz kanpoko kokapena, eta etengabe epaitzen dituen kanpo-begirada heterosexuala. Ez du zerikusik klase ertaineko gizon homosexual zuri batek bizi duena, edo sexu-langilea den emakume bisexual beltz batek bizi duena. A priori, kostatuko litzaiguke komunitate berean ulertzea eta, askotan, agenda eta helburu desberdinak eta kontrajarriak izango dituzte. Hala ere, talde berekoak izan daitezke, LGBTIQ+ komunitatekoak, erregimen heterosexualak zeharkatuko dituenak. Biak zeharkatzen dituen begirada hori da, oso modu desberdinean bada ere, LGBTIQ+ deituko diogun definizio anitza eta ga-

tazkatasua duen komunitate baten existentzia baieztatzen diguna. Etengabeko erreprodukzio honek, patriarkatuak ezarritako sistema heterosexualean du oinarria, eta heterosexualitatea zilegitzat jotzera eramaten gaitu, baita bere eredu sexuala onartzera ere.

Ordea, ²interseksionalitateak, zapalkuntza eta menderatze desberdinak elkarrizketan jartze-ko balio digun tresnak, aukera emango digu subjektu hain desberdin horiek gizarte-hierar-kia berean ez kokatzeko. Horregatik, interseksionalitatea da guretzat ezinbesteko lanabesa. **Horregatik guztiagatik, LGTBIQ+ kontzeptua konglomeratu politiko bat bezala ulertzen dugu, lagungarria zaigun fikzio politiko bezala.** Gainera, LGTBIQ+ kontzeptua eztabaidaga-rria izan daitekeen arren, eraikuntza sozial bat den heinean, moldagarria ere bada, eraldatzen joaten dena.

2.5. Aniztasuna argitzen

Txosten honetan, LGTBIQ+ nomenklatura erabiliko dugu, baina jada esan dugun moduan, hizki bakoitzak errealitate ezberdin bati egingo dio erreferentzia.

Lesbiana (L)	Genero bereko beste pertsona batek emozionalki, afektiboki, erromantikoki eta/edo sexualki erakartzen duela sentitzen duen emakumea.
Gay (G)	Genero bereko beste batzuekiko erakarpen emozionala, afektiboa eta/edo sexuala sentitzen duen gizona.
Trans (T)	Gorputzaren arabera jaiotzean esleitutako generoarekin ados edo eroso ez, eta haien burua beste genero (hemen barruan sartuko dira sexu/genero kategoria zisheteroetatik disidenteak diren gorputzak) kategoria batean identifikatzen duten pertsonak.
Bisexualitatea (B)	Genero bat baino gehiagorekin erakarpen erromantiko, afektibo eta/edo sexuala duten pertsonak, ez derrigorrez aldi berean, ez derrigorrez modu berean eta ez derrigorrez maila eta intentsitate berean.
Intersexuala (I)	Medikuntzak kategorizatzen dituen sexu banaketa (ar/eme) bitarretik kanpo kokatzen diren gorputzak, haien genitalak, hormonak, ugal apartuak edota kromosomak ezin direlako kategoria bitar horietan kokatu.
Queer (Q)	Zisheteroarauan kokatzen ez direnak barne biltzen dira termino honetan. Hots, heteroarauan eta zisak ez direnak kokatzen dira hemen. Ez hori bakarrik, kontzeptu honek mugimendu politiko eta teoriko bati egiten dio erreferentzia.
Plus (+)	Bestelako aukera eta lehentasunak jasotzen ditu, hala nola, asexualitatea, pansexualitatea, genero "fluidoa", ea.

² Fenomeno honek adierazten du, gizabanako bakoitzak zapalkuntza jasan edo pribilegioa duela, gizarteko kategoria sozial aniztetako kide izateagatik (Crenshaw, 1989).

2.6.

Zentzugabeko falazia: LGTBIQ+a hiritarra da

Hiria eta herria bi elementu kontrajarri eta binomiko moduan ulertu izan dira historikoki, menderatze-harreman batean oinarritzen diren bi elementu gisa, hierarkia batean eratuak balira bezala. Bata ikusgarria izango da (hiria) eta bestea ezkutukoa eta bukolikoa (herria). Heteroaraua bezala, hau ere ordena sozialaren mekanismo bat da. Herriaren inguruan oso imajinario sendo bat sortu da ideologia modernizatzaileengatik: ³sozialki eta ekonomikoki atzeratua. Imajinario bat den heinean, sustraituta ere badago Euskal Herrian, baina irreala eta estigmatizalea besterik ez da.

Heteroarauaren aldagaiarekin gurutzatzen badugu herria eta hiriaren arteko dikotomia, hiria denez iruditegi kolektiboan modernoa dena, LGTBIQ+ idearioa hiriari lotua joango da. Kontrarioki, herria denez "betikoa", heterosexuala izango da. Zentzugabeko falazia bat besterik ez da, eta zergatik diogu hau? datuek, ordea, erakusten digutelako eraso LGTBIQfobiko gehiago ematen dela hirietan herrietan baino.

Hala ere, hiria eta herriaren arteko aldeak ezin ditugu modu dikotomikoan ulertu, ez on eta txarraren logiketan, baizik eta konplexutasunean.

2.7.

Oñatiko errealitatea: begirada soziologiko bat

Oñatiko LGTBIQ+ bizitzak ulertzeko ezinbestekoa da herriaren beraren begirada soziologikoan sakontzea. Identitate disidenteez eta sexu- eta genero-aniztasunak ez dute existitzen testuinguru sozialetik kanpo; aitzitik, herriaren egitura, balio-sistema eta harreman sareen barnean txertatzen dira. Hortaz, Oñatiren izaera soziokultural eta historikoa ulertzea da diagnostiko honek behar duen lehen pausoa.

2.7.1.

DEMOGRAFIA ETA BIZTANLERIA-EGITURA

Oñati Gipuzkoako barnealdeko herri ertaina da, 11.000 biztanle inguruk osatua. Azken urteetan, biztanleria egonkorra mantendu da, nahiz eta belaunaldien arteko oreka aldatzen joan den. Gazteek emantzipatzeko zailtasunak dituzte, eta honek eragin zuzena du herriko bizitzan, hala nola, belaunaldi gazteek sarri kanpora jotzen dute lan edo ikasketa aukerak bilatzera, eta horrek belaunaldi arteko harremanen dinamika baldintzatzen du.

Bestalde, etorkinen presentzia moderatua izan arren, azken urteetan gero eta handiagoa da jatorri desberdinetako familien integrazioa. Ez hori bakarrik, herrian bertan kokatzen den errefuxatuen zentroak eragin zuzena du eta etorkinak diren herritarren bizitzan eta Oñati-

³ Kasu honetan, herriaren definizio modernoan kokatzen ari gara, hots, ez diogu erreferentzia egiten Oñatiko herriaren parte diren ezaugarriei

koak diren herritarren artean. Honek herriaren egitura soziala eta kulturarteko harremanak aberastu ditu, eta identitate kolektiboaren barruan aniztasunaren elementuak txertatzeko aukera zabaldu.

2.7.2.

EKONOMIA ETA LAN-EGITURA

Oñatik industria tradizio handia du, Gipuzkoako gainerako herri askoren moduan. Metalurgia, makinagintza eta industria ertainak izan dira ekonomia lokalerako oinarri nagusiak. Azken urteetan, ordea, zerbitzu sektoreak eta hezkuntza-eremuak hartu dute indarra, bereziki Mondragon Unibertsitatearen presentziari esker.

Lan-egiturak eragin zuzena du gizartearen antolaketan eta rol sozialen banaketan. Enpleguaren egonkortasunak eta industriaren pisuak, tradizionalak, lanaren eta familiaren arteko rolen banaketa tradizionala mantentzeko joera izan dute, baina azken urteetan gero eta gehiago dira balio eta bizitza-eredu berriak agertzen ari direnak.

2.7.3.

KULTURA ETA IDENTITATEA

Oñatiko kultur bizitza oso aberatsa da, eta nortasun komunitarioaren osagai nagusietako bat bihurtu da. Herriko jaiak, elkarteak, eta kultura ekimenak komunitatearen kohesioa elikatzen dute, eta herritarren parte-hartzea sustatzen dute.

Hala ere, kultura herrikoi eta tradizionalaren pisuak batzuetan zaildu egiten du ikuspegi berrien integrazioa. Tradizioa eta berrikuntza, lokalismoa eta globalizazioa, eremu berean bizi diren tentsio sozialak dira. Oñatik, alde horretatik, gaitasuna erakutsi du tradizioa zaintzeko eta aldi berean ekimen berritzaileak txertatzeko, horien artean, gazte mugimenduak, elkarre alternatiboak eta hezkuntza ekimen aurreratuak horren adibide dira.

2.7.4.

HEZKUNTZA ETA SOZIALIZAZIOAREN GUNEAK

Hezkuntza Oñatin funtsezko zutabe soziala da. Haur eta gazteentzat eskaintza zabal eta anitza dago, esaterako, hezkuntza formala, aisialdi elkarteak, kirol taldeak eta kultura proiektuak. Sozializazio espazio hauek balioen transmisiorako eta bizikidetzarako funtsezko guneak dira.

Gazteen artean, hezkuntza formala eta informala uztartzen dira, eta horrek balio berrien sarrera ahalbidetzen du. berdintasunaren, aniztasunaren eta parte-hartzearen inguruko lanak gero eta gehiago txertatzen ari dira, baina aldi berean belaunaldi gazteen artean oraindik ere identitate kolektiboari eta herri-kohesioari buruzko eztabaidak irekita daude.

2.7.5.

KOMUNITATEA ETA BIZIKIDETZA

Oñati herri elkartu eta gertukoa da, non bizilagunen arteko harremanek eta ezagutza pertsonalek garrantzi handia duten. Horrek segurtasun eta babesa sortzen du, baina aldi berean kontrol sozialaren eta konformismoaren arriskua ere ekar dezake.

Komunitatearen bizikidetza ulertzeko, funtsezkoa da balio tradizionalen eta errealitate berrien arteko oreka lantzea. Oñatiko komunitateak gaitasuna erakutsi du eztabaidatzeko, errespetua sustatzeko eta elkarlana oinarri duen bizikidetza eredua garatzeko.

2.7.6.

POLITIKA ETA PARTE-HARTZE SOZIALA

Oñatiko bizitza politikoa eta soziala aktiboa da. Udalak eta herriko eragileek elkarlan estua izan dute urte luzez, eta horrek parte-hartze kultura sendoa eratu du. Herritarren inplikazioa, kontseilu ezberdinen bidez edo elkarte sarearen bitartez, ohikoa da.

Parte-hartze hori, hala ere, ez da beti berdin hedatzen biztanle segmentu guztien artean. Alegia, gazteak, emakumeak edo jatorri anitzeko pertsonak sarri baztertuago gelditzen dira erabaki gunetatik. Horregatik, etorkizuneko erronka da herritarren parte-hartzea are gehiago demokratizatzea eta ahots berriei lekua egitea izango da.

2.8.

Zentzugabeko falazia: LGTBIQ+ a hiritarra da

Herrietan bizi-proiektu anitzak garatzen dira. Begirada dikotomiko eta urbanozentrista horren ondorioz, ordea, jakintzak, instituzioek egiten duten lana eta narratiba sozialak baliogabetu ditugu, ikusgaitzak bihurtuz. Euskal Herrian burutu diren LGTBIQ+ diagnostiko gehienek baieztatzen dute, ordea, **herriak ez direla hiriak baino heterosexualagoak, ezta horietan baino fobia eta desira disidente gutxiago dagoenik**. Tamalez, hiriko tresna analitikoekin aztertu ditugu eta, askotan, bere politika publikoak begirada horrekin abian ipini ditugu, extraktibismotik ariketa doilor bat eginez.

Zentzu honetan, udal gobernuek politika publikoetan begirada eta lidergo ez-heterosexuala burutzeko aukera anitzagoak daude, udalgintza ez-heterosexuala eta feminista martxan jarritz. Herriek hurbiltasun handiagoa dute instituzio eta herritarraren artean eta, horri esker, haien beharrak identifikatu eta hurbileko udal-politika eraginkorrak eta eraldatzaileak diseinatu daitezke modu errazago eta azkarragoan.

Aldi berean, aipatu beharra dugu hiriaren testuingurua izan daitekeela, oro har, eremu irekiago bat LGTBIQ+ pertsonentzat hainbat arrazoiengatik (hiriak ematen duen anonimotasuna, aisial-

di aukera zabalagoa, etab.) Bestalde, hiriak indibidualismoa eta isolamendu ekarri dezake berekin. Herriak aldiz, batzuetan itogarriagoak dira, kasuak kasu. Izan ere herria, komunitatea, harremanak eta sareak sortzeko aukera gehiago ematen du. Gainera, irekitasunerantz jotzeko aukera falta baten aurrean, instituzioek lan handiagoa egin dezakete LGTBIQ+ pertsonen bizitzak hobetzeko.

LGTBIQ+ *diagnostikoa*



“Oñatiko LGTBIQ+ pertsonen bizitzak ez dira isolaturik; nazioarteko eta tokiko legeek babesten dituzte, baina herrian errealitate sozialak legeak baino pisutsuagoak izan daitezke.”

3 — LGTBIQ+ eskubideen inguruko araudia

Marko legegileari dagokionean, LGTBIQ+ pertsonak oraindik ere hutsune eta traba batzuei aurre egin behar dieten arren, azkeen urteetan aurre-
ra pasu handiak eman dira LGTBIQ+ pertsonen eskubideak bermatzeko
legeen diseinu eta aplikazioan. Aurkezten den proposamenaren euskarri
juridikoa azaltzen da Jarraian, proposatuko diren neurri eta politiken
basaleku legala hain zuzen ere. Proposamen hau eta ondorengo ibilbidea
eratzeko, lau araudi-esparru nagusi hartuko ditugu kontutan:

- **Nazioarteko arau esparrua.**
- **Europar Batasuneko arau esparrua.**
- **Espainiar estatuko arau esparrua.**
- **Euskal Autonomia Erkidegoko arau esparrua.**

3.1.

Nazioarteko arau esparrua

- **Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948)**
 - 1. Artikulua "Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituzte-
la; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute."
 - 2. Artikulua "Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askata-
sunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bes-
telako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabehe-
ragatik."
- **Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (1966)**
 - 2.1. Artikulua "Itun honetako estatu alderdi bakoitzak konpromisoa hartzen du bere lurraldean
dauden eta bere jurisdikzioaren mende dauden gizabanako guztiei itun honetan aitortutako es-
kubideak errespetatzeko eta bermatzeko, arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa
edo beste era batekoa, jatorri nazionala edo soziala, ekonomia-maila, jaiotza edo beste edozein
gizarte-baldintza kontuan hartu gabe."
- **Yogyakartako printzipioak (2006):** Giza Eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari
eta genero-identitatearen alorrean ere aplikatzeari buruzko printzipio-multzo bat dira, estatuak
LGTBIQ+ pertsonen eskubideak bermatzera bultzatuz.
- **Homofobiaren eta sexu-orientazioan oinarritutako diskriminazioaren aurkako adierazpena**
(2008ko abenduaren 18). "Pertsonen aurkako diskriminazio eta indarkeria mota guztiak ezabat-
zea, haien sexu-orientazio eta genero-identitatea edozein izanik ere."

-
- Giza Eskubideen Kontseiluaren sexu-orientazio eta genero-identitatearen inguruko 17/19 ebazpena (2011). "Giza Eskubideak, Sexu Orientazioa eta Genero Identitatea" izenburua duen ebazpenak mundu osoko sexu-orientazioan eta genero-identitatean oinarritutako indarkeriaren eta diskriminazioaren inguruko kezka jorratzen du, eta neurriak hartzeko eskatzen die estatuei, sexu-orientazioan eta genero-identitatean oinarritutako indarkeria eta diskriminazioa prebenitzeko eta eta horren gainean esku-hartzeko.
 - Giza eskubideen, Sexu-orientazio eta Genero- identitatearen inguruko NBEko Batzar Nagusiaren ebazpena (2012ko ekainaren 4ean). LGBTIQ pertsonen aurkako diskriminazioa eta indarkeria giza eskubideen urraketa direla onartzen du, eta estatu kideei dei egiten die neurriak har ditzaten urraketa horiek prebenitzeko eta horiei aurre egiteko. Ebazpenak, halaber, Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Komisarioari eskatzen dio gaiari buruzko txosten bat prestatzeko eta informazio-bilera bat antolatzeko, LGBTI pertsonen eskubideak babesteko jardunbide eta erronkak eztabaidatzeko.
 - Giza Eskubideen Kontseiluak onartutako 27/32 ebazpena - "Giza eskubideak, Sexu-orientazioa eta Genero- identitatea" (2014ko irailaren 26ean). Ekubideen urraketa moduan hartzen ditu sexu-orientazioan eta genero-identitatean oinarritutako diskriminazioa eta indarkeria, eta giza eskubideen urraketa horiek prebenitzeko eta horiei aurre egiteko neurriak hartzearen garrantzia nabarmentzen du. 27/32 Ebazpenak estatuei eskatzen die pertsona guztien giza eskubideen babesa bermatzeko, haien orientazio sexuala eta genero-identitatea alde batera utzita, eta LGBTI pertsonen aurkako diskriminazioa eta indarkeria prebenitzeko eta horri heltzeko neurri zehatzak hartzeko.
 - Giza Eskubideen Kontseiluak onartutako 32/2 ebazpena - "Sexu-orientazio eta genero-ideantitateagatik jasotako indarkeriaren eta diskriminazioaren aurkako babesa" (2016ko ekainaren 30ean).
 - Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jasotako indarkeriaren eta diskriminazioaren aurkako babesa bermatzeko maila internazionalen indarrean dauden tresnen aplikazioa ebaluatu, eta horien indargune eta hutsuneak identifikatu.
 - Herritarrengan sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jasotako indarkeriaren eta diskriminazioaren inguruko kontzientzia zabaltzea eta indarkeria eta diskriminazioaren muin eta arrazoi nagusiak identifikatu.
 - Estatuekin eta kasuan kasuko beste interesdun batzueki, hitz egitea. Nazio Batuen organismoak, programak eta funtsak, giza eskubideak, giza eskubideen erakunde nazionalak, gizarte zibila eta erakunde akademikoak, eta haiekin kontsultak egitea; A/HRC/RES/32/2 eta GE.16-12176 3.
 - Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik indarkeriarik eta diskriminaziorik ez jasotzeko, estatuekin lankidetzen, babeserako neurriak diseinatu eta aplikatzea.
 - Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jasotzen den indarkeria eta diskriminazioaren arrazoi anitz, elkarlotu eta intersekzionalei aurre egitea.
-

-
- Aholkularitza-zerbitzuak antolatzea, erraztea eta babestea. Laguntza teknikoa eskaini eta gaitasunak sustatzea. Baita, Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jasotzen den indarkeria eta diskriminazioaren aurrean jarduteko estatu ezberdinek dituzten neurriak babesteko kooperazio internazionala.
 - Giza Eskubideen Kontseiluak onartutako 41/18 ebazpena - "Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jasotzen den indarkeria eta diskriminazioaren babeserako aditu independentearen mandatua" (2019ko uztailaren 19an). Aditu independente bat izendatuko da, Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jasotzen den indarkeria eta diskriminazioaren babesa abordatzeko. Aditu independentea arduratuko da LGBTIQ+ pertsonen giza eskubideen egoera mundu osoan monitorizatzeaz, indarkeria- eta diskriminazio-kasuak ikertzeaz, LGBTIQ+ pertsonen eskubideak babesteko jardunbide eta erronka onenei buruzko informazioa emateaz eta Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseiluari urteko txostenak aurkezteaz.

3.2.

Europar Batasuneko arau esparrua

- Giza Eskubideen Europako Konbentzioa (1950).
 - "Konbentzio honetan aitortutako eskubide eta askatasunen gozamina inolako bereizketarik gabe ziurtatu behar da, sexua, arraza, kolorea, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo beste jatorri nazional edo soziala, gutxiengo nazional bateko kide izatea, aberastasuna, jaiotza edo beste nolakotasunak edozein izanik ere."
 - Europako Kontseiluaren 756. Ebazpena eta 934. Gomendioa, "pertsona homosexualei dagokienean"(1981).
 - 756. ebazpena: Estatu kideei eskatzen die sexu-orientazioan oinarritutako diskriminazioari aurre egiteko neurriak har ditzatela eta homosexualen tratu-berdintasuna berma dezatela enpleguaren, hezkuntzaren eta etxebizitzaren arloetan, besteak beste.
 - 934 Gomendioa: 756. ebazpena osatzen du, orientazio zehatzagoa ematen baitu homosexualenganako diskriminazioari heltzeko neurriei dagokienean. Berdintasuna sustatzeko eta pertsona homosexualen eskubideak babesteko ezar daitezkeen politikei eta legegintza-neurriei buruzko gomendio espezifikoak jasotzen ditu estatu kideentzat.
 - Europako Parlamentuaren 1984ko martxoaren 13ko Ebazpena, lantokiko sexu diskriminazioei dagokiena. Berariaz lantzen ditu lantokietako sexu-orientazioagatik jasotzen diren diskriminazioak.
 - Europako Parlamentuaren 1989ko irailaren 12ko Ebazpena, transexualen aurkako diskriminazioari dagokiona. Pertsona transexualek dituzten kezka eta erronka espezifikoek heldzea du helburu, eta diskriminazioaren aurrean jarduteko eta oinarritzko giza eskubideak bermatzera bultzaten ditu.
 - Europako Parlamentuak 1994ko otsailaren 8an emandako ebazpena, Europako Erkidegoko homosexualen eta lesbianen eskubideen berdintasunerako.
-

-
- Amsterdango Ituna 1997ko urriaren 2an. 13.1. artikulua "Itun honetako gainerako xedapenei kalterik egin gabe, eta Erkidegoari ematen dizkion eskumenen mugen barruan, Kontseiluak, 2. paragrafoan ezarritako prozeduraren arabera, neurri egokiak hartuko ditu sexuagatik, arrazagatik edo jatorri etnikoagatik, erlijio edo sinesmenengatik, desgaitasunagatik, adinagatik edo sexu-orientazioagatik diren bereizkeriaren aurka borrokatzeko. "
 - Europako Parlamentuaren ebazpena (2006ko urtarrilaren 18an). Lesbianen eta gayen eskubideen berdintasunari eta diskriminazioaren eta homofobiaren aurkako borrokari dagozkionak. Estatu kide guztiei eskatzen zaie xedapen juridiko eta administratibo guztietan tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzen ziurtatu dezaten, xedapen pertsonen sexu-orientazioa edozein izanik ere.
 - Europako Parlamentuaren Ebazpena, Nazio Batuetako giza eskubideei, sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagokiona (2011ko irailaren 28an).
 - Europako Parlamentuaren Ebazpena, European homofobiaren aurkako borrokari dagokiona (2012ko maiatzaren 24ean). Gako nagusi batzuk ondorengo hauek izan ziren.
 - LGBTIQ+ pertsonen aurkako diskriminazioa eta indarkeria gaitzestea.
 - Estatu kideei dei egiten zaie neurri zehatzak har ditzaten LGBTIQ+ pertsonen tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko bizitzako esparru guztietan, baita enpleguan, hezkuntzan, arreta medikoan eta etxebizitzan ere.
 - Hezkuntzak LGBTIQ+ pertsonetako errespetua eta tolerantzia sustatzeko duen funtsezko zergina ezagutzea.
 - Estatu kideei eskatzea neurriak har ditzatela familiaren eremuko eta LGBTIQ+ pertsonentzako osasun-zerbitzuetarako sarbideari dagokion diskriminazioari aurre egiteko
 - LGBTIQ+ pertsonentzat adierazpen-askatasunaren eta bilera baketsuen garrantzia aitortzea, bai eta EBtik kanpoko herrialdeetan jazartuak diren LGBTI pertsonak babesteko beharra ere.
 - Lunacek informea (2014). Sexu-orientazioagatik eta genero-identitateagatik jasotzen den diskriminazioa borrokatzeko eta homofobiaren kontra jarduteko EBren ibilbide-orriari buruzko txostena.
 - Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren berrikuspena (2016). Berretsi egiten da " "Debekatuta dago bereizkeria oro, eta, bereziki, sexuagatik, arrazagatik, koloreagatik, jatorri etniko edo sozialagatik, ezaugarri genetikoengatik, hizkuntza, erlijio edo sinesmenengatik, iritzi politikoengatik edo beste edozeinengatik, gutxiengo nazional bateko kide izateagatik, ondareagatik, jaiotzagatik, desgaitasunagatik, adinagatik edo sexu-joeragatik. "
 - Europako Parlamentuaren ebazpena, EB LGBTIQ+ pertsonentzako askatasun-eremu deklaratzeari dagokiona (2021eko martxoaren 11an). EB LGBTIQ pertsonentzako askatasun-eremu gisa deklaratzeari.
-

3.3.

Espainiar estatuko arau esparrua

Kasu honetan, Estatu mailan aurretik bestelako lege batzuk diseinatu badira ere, transen berdintasun erreal eta efektiborako eta LGTBIQ+ pertsonen eskubideak bermatzeko otsailak 28ko 4/2023 legea hartuko dugu kontuan nagusiki, LGTBIQ+ pertsonen eskubideak bermatzeko esanguratsuena delako. Garrantzia berezia eman diogu hiru alderditan:

Eragin esparrua eta funtzioak oso modu zehatzean argitzen ditu legeak. Horretarako, bereziki begiratuko ditugu I. Kapitulua 4, 5, 6 eta 7. artikulua. Bertan, botere publikoen betebeharrak eta ekimenak zehazten dira, hala nola, "babes, errekonozimendu, sentsibilizazio eta zabalpen" betebeharrak. Hala ere, bereziki azpimarragarria da, diagnostiko eta ekintza plan honi dago-kionez, 7. Artikuluak zehazten duen "Ikerketa eta estatistikarako" betebeharra.

TÍTULO I

Actuación de los poderes públicos

CAPÍTULO I

Criterios y líneas generales de actuación de los poderes públicos y órgano de participación ciudadana

Artículo 4.

Deber de protección.

Los poderes públicos, en el ámbito de sus competencias, desarrollarán todas las medidas necesarias para reconocer, garantizar, proteger y promover la igualdad de trato y no discriminación por razón de orientación e identidad sexual, expresión de género o características sexuales de las personas LGTBIQ+ y sus familias.

Artículo 5.

Reconocimiento y apoyo institucional.

1. Los poderes públicos adoptarán las medidas necesarias para poner en valor la diversidad en materia de orientación sexual, identidad sexual, expresión de género y características sexuales y la diversidad familiar, contribuyendo a la visibilidad, la igualdad, la no discriminación y la participación, en todos los ámbitos de la vida, de las personas LGTBIQ+.

2. Los poderes públicos fomentarán el reconocimiento institucional y la participación en los actos conmemorativos de la lucha por la igualdad real y efectiva de las personas LGTBIQ+.

Artículo 6. Divulgación y sensibilización.

Los poderes públicos, en el ámbito de sus competencias, promoverán campañas de sensibilización, divulgación y fomento del respeto a la diversidad en materia de orientación sexual, identidad sexual, expresión de género y características sexuales y a la diversidad familiar, dirigidas a toda la sociedad, y en especial en los ámbitos donde la discriminación afecte a sectores de

población más vulnerables.

Artículo 7.

Estadísticas y estudios.

1. Los poderes públicos, en el ámbito de sus competencias, impulsarán la realización de estudios y encuestas sobre la situación de las personas LGTBI que permitan profundizar en la naturaleza y el alcance de las principales situaciones de discriminación que les afectan y registrar su evolución a lo largo del tiempo.

2. Los poderes públicos, en el ámbito de sus competencias, incluirán en la elaboración de sus estudios, memorias o estadísticas, cuando se refieran o afecten a aspectos relacionados con la discriminación de las personas LGTBIQ+, los indicadores y procedimientos que permitan conocer las causas, extensión, evolución, naturaleza y efectos de dicha discriminación. Estos datos se desglosarán en función de las causas discriminatorias previstas en esta ley siempre que sea posible.

- Bestetik, 2023ko Legea oinarri gisa hartzeko beste arrazoi bat, legea beraren gaurkotasuna da, batik bat, trans despatologizazio eta terminologiari dagokionez.

“En lo relativo a las personas transexuales (en adelante, personas trans), la Clasificación Internacional de Enfermedades de la Organización Mundial de la Salud, en su undécima revisión (CIE-11), de 2018, eliminó la transexualidad del capítulo sobre trastornos mentales y del comportamiento, trasladándola al de «condiciones relativas a la salud sexual», lo que supone el aval a la despatologización de las personas trans”

- Eta azkenik, 3. artikuluan oinarritzko kontzeptuak birdefinitzeko egindako lana ere kontuan izango dugu, zeinak gida gisa balioko digun terminologia eta eragite arloak definitzeko.

g) Intersexualidad: La condición de aquellas personas nacidas con unas características biológicas, anatómicas o fisiológicas, una anatomía sexual, unos órganos reproductivos o un patrón cromosómico que no se corresponden con las nociones socialmente establecidas de los cuerpos masculinos o femeninos.

h) Orientación sexual: Atracción física, sexual o afectiva hacia una persona. La orientación sexual puede ser heterosexual, cuando se siente atracción física, sexual o afectiva únicamente hacia personas de distinto sexo; homosexual, cuando se siente atracción física, sexual o afectiva únicamente hacia personas del mismo sexo; o bisexual, cuando se siente atracción física, sexual o afectiva hacia personas de diferentes sexos, no necesariamente al mismo tiempo, de la misma manera, en el mismo grado ni con la misma intensidad.

Las personas homosexuales pueden ser gais, si son hombres, o lesbianas, si son mujeres.

i) Identidad sexual: Vivencia interna e individual del sexo tal y como cada persona la siente y autodefine, pudiendo o no corresponder con el sexo asignado al nacer. j) Expresión de gé-

nero: Manifestación que cada persona hace de su identidad sexual.

k) Persona trans: Persona cuya identidad sexual no se corresponde con el sexo asignado al nacer.

l) Familia LGTBIQ+: Aquella en la que uno o más de sus integrantes son personas LGTBIQ+, englobándose dentro de ellas las familias homoparentales, es decir, las compuestas por personas lesbianas, gais o bisexuales con descendientes menores de edad que se encuentran de forma estable bajo guardia, tutela o patria potestad, o con descendientes mayores de edad con discapacidad a cargo.

m) LGTBIQ+fobia: Toda actitud, conducta o discurso de rechazo, repudio, prejuicio, discriminación o intolerancia hacia las personas LGTBI por el hecho de serlo, o ser percibidas como tales.

n) Homofobia: Toda actitud, conducta o discurso de rechazo, repudio, prejuicio, discriminación o intolerancia hacia las personas homosexuales por el hecho de serlo, o ser percibidas como tales.

ñ) Bifobia: Toda actitud, conducta o discurso de rechazo, repudio, prejuicio, discriminación o intolerancia hacia las personas bisexuales por el hecho de serlo, o ser percibidas como tales.

o) Transfobia: Toda actitud, conducta o discurso de rechazo, repudio, prejuicio, discriminación o intolerancia hacia las personas trans por el hecho de serlo, o ser percibidas como tales.

p) Inducción, orden o instrucción de discriminar: Es discriminatoria toda inducción, orden o instrucción de discriminar por cualquiera de las causas establecidas en esta ley. La inducción ha de ser concreta, directa y eficaz para hacer surgir en otra persona una actuación discriminatoria.

3.4.

Euskal Autonomia Erkidegoko arau esparrua

- 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. Horrela definitzen da legearen helburua:

Transexualei, transexual izateagatik edo izate horrek sortzen dien egoera pertsonal zein sozialagatik, legedian oraindik ere eragiten zaizkien bereizketa mota guztiak gainditzera bidean laguntzea eta aurreratzea, eta, horrekin batera, Konstituzioan aipatzen diren zenbait printzipioen arau-garapena hobetzea, alegia, diskriminaziorik eza, nortasunaren garapen askea eta pertsonaren, familiaren eta taldearen babes sozial, ekonomiko eta juridikoa jasotzen dituzten printzipioen arau-garapena hobetzea, horretarako aplikatzekoa den araudia gizarteak bizi duen garai historiakoari egokituz

- 234/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoa. Dekretuak azalpen atal bat, sei artikulua, azken xedapen bat eta bi eranskin ditu. Lehenengo artikuluan adierazten da, hain zuzen ere, dekretuaren xedea dela transexualek, Erregistro Zibilean sexuari buruzko aipamena aldatzen duten arte, edo Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkinen kasuan, jatorrizko herrialdean erregistro-aldaketa egin ahal izan arte, eduki dezaketen dokumentazio administratiboa arautzea.

Bigarren artikuluan, dekretuak bere aplikazio-eremua finkatzen du eta legean araututako dokumentazio administratiboa zer pertsonak eskuratu ahal izango duen zehazten du.

Bestetik, hirugarren artikuluan, dokumentazio administratiboa jaulkitzeko organo-eskuduna zein den zehazten da. Laugarren artikuluan, jaulkitzeko prozedura azaltzen da, eta azkenik, bosgarren artikuluan, aurretik aipatutako prozedura ebaztearekin lotutako alderdiak arautzen dira.

Seigarren artikuluan, dekretu honen bidez araututako dokumentazio administratiboa jaulkitzearen ondorio orokorrak eta ondorio partikularrak finkatzen dira, zehazki, osasun eta hezkuntza arlokoak.

Azkenik, bi eranskinetan, dokumentazio administratiboa eskatzeko eredua eta jaulki beharreko txartelaren eredua finkatzen dira, hurrenez hurren.

- 9/2019 LEGEA, ekainaren 27koa, 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa aldatzekoa.

Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeko 3. artikulua aldatzea, horrela bilatuz transexualitatea despatologizatzea.

Transexualitate-nozioak erreferentzia egiten dio egoera bati zeinean pertsona bati jaiotzean esleitu zitzaion sexua ez datorren bat sentitzen duen eta berea dela badakien sexuarekin. Transexualitatea, beraz, modu bakarrean jakin daiteke: libreki adierazten duen pertsona entzunda. Eta, sexu-identitatea bezalaxe, ezin da diagnostikatu. Ez da gaixotasuna, ez desoreka, ez anomalia bat, giza aniztasunaren parte baizik.

Ondorioz, lege honen ondorioetarako, pertsona transexualaren kontsiderazioa arautuko du identitate sexualaren autodeterminazio librerako eskubideak. Eskubide hori ezingo da mugatua, murriztua, zaildua edo ezeztatua izan, beti arauak jarritz eta aplikatuz ariketa libre eta oso horren alde. Pertsona transexualek baliatu ahal izango dira lege honetan ezarritakoaz, diagnostiko edo txosten psikiatrikorik, psikologikorik edo tratamendu medikorik gabe."

- 4/2024 LEGEA, otsailaren 15ekoa, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. Lege honek ordeztu egiten du 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa, eta horrekiko aldaketa esanguratsuenak ondorengoak dira, besteak beste, trans izendapena onartuko da; Ez-bitar terminologia txertatu da; Mutilazio genitala ekidingo da; Judizializazio prozesuen aurretik gizarte zerbitzuen eskuhartzea lehenetsiko da; Trans memoria eguna arautuko da.

Pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko lege honek ordeztu egiten du 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa, helburua izanik, batetik, pertsona transek beren izateagatik edo egoera pertsonal zein sozialagatik jasaten dituzten diskriminazio guztiak gainditzeko bidean lagundu eta aurrera egitea, eta, bestetik, kolektibo horren berezitasunei erantzutea.

Lege honek, guztira, zortzi kapitulu, berrogeita bi artikulua, hiru xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu.

I. kapituluaren arauaren xedea, aplikazio-eremua eta xede dituen kolektiboen definizioa biltzen dira. Hala, aurreko arauak ez bezala, berariaz jasotzen dira, pertsona transexualak ez ezik, pertsona transgeneroak eta intersexualak ere.

II. kapituluaren trans arloko politika publiko baterako oinarriak ezartzen dira, eta honako hauek arautzen dira: euskal administrazio publikoek pertsona transekiko izan beharreko tratamendua, eta Euskal Administrazioko langileei prestakuntza emateko betebeharra; trans mugimenduaren memoria aintzatestea eta balioestea; transfobiari aurre egiteko garatu eta aplikatu beharreko neurriak, eta pertsona transen administrazio-agiriei dagokienez hartu beharreko neurriak. Aipatzekoa da, duen garrantziagatik, kapitulu honetan orobat eskatzen zaiela euskal administrazio publikoei berma diezaietela pertsona adingabe transexualei beren garapen integrala eta nortasunaren garapen askea bultzatzeko beharrezkoak diren babesa eta arreta.

III. kapituluaren idazketak garapen luzea egiten du bai Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren arretari dagokionez, bai pertsona transek jasotzeko eskubidea duten osasun-prestazioei dagokienez; Transexualitatearen Arretarako Unitate Espezializatua erregelamendu-mailatik lege-mailara pasatzen da; oinarriak ezartzen ditu pertsona transen arretarako osasun-gidaren lege-garapena egiteko; osasun-prestazioen aurreikuspen zabala jasotzen du eta pertsona transen eskubideak kodetzen ditu. Aldi berean, artikulua berri batean jasotzen du berariaz debekatzen direla genitalen aldaketa eta mutilazioa, bai eta pertsona intersexualengan kaltegarriak diren beste prozedura mediko batzuk ere.

IV. kapituluaren, bestalde, familia-eremuko neurriak aipatzen dira, eta familia-aniztasunaren babesa, sexu-identitateagatiko diskriminaziorik eza eta eremu horretan indarkeriaren aurrean laguntzeko eta babesteko neurriak sustatzen dira.

V. kapituluaren, lan-arloko diskriminazioaren aurkako neurrietan sakontzen da; besteak beste, ekintza positiboko neurriak hartzea eta ekitatea eta diskriminaziorik eza sustatzea enpleguaren arloan, eta trans errealitateak sartzea enpresen gizarte-erantzukizunaren eremuan. Orobat aurreikusten da lan-arloko diskriminazioaren aurkako plan bat garatzea erregelamendubidez, eta laneko jazarpenaren aurkako mekanismoak ezartzea. Bestalde,

VI. kapituluaren, hezkuntza-sisteman trans errealitatea artatzeko neurriak arautzen dira, barne hartuta eskola-eremuan trans errealitatea artatzeko protokolo bat, trans errealitateak hezkuntza-planetan eta -edukietan sartzea, eta prestakuntza- eta dibulgazio-ekintzak garatzea. 44. zk. 2024ko otsailaren 29a, osteguna EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA 2024/1068 (21/3)

VII. kapituluaren kulturaren, aisialdiaren eta kirolaren arloko neurriak arautzen dira, kultura

inklusiboa sustatzearen ikuspegitik eta kirolean, aisialdian eta denbora librean ekitatez eta sexu-diskriminaziorik gabe parte hartzearen ikuspegitik.

VIII. kapitulua segurtasunaren, justiziaren eta larrialdien arloko neurriei buruzkoa da. Besteak beste, alde batetik ezartzen da ezen, Eusko Jurlaritzak, bere eskumenen esparruan, zaindu egin behar duela gorroto-delituaren biktima diren pertsona transei arreta emateko beharrezko neurriak hartzen direla Ertzaintzan eta Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingoetan, eta, bestetik, beharrezko neurriak hartu behar direla pertsona transen tratatu eta egonaldi egokiak bermatzeko poliziaren egoitzetan, epaitegietan eta askatasunaz gabetzeko beste eremu batzuetan.

Azkenik, hiru xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen sartu dira. Xedapen gehigarriei dagokienez, lehenengo bietan ezartzen da, batetik, zer epe ematen zaion Gobernuari osasun-gida eratu behar duen batzordea abian jartzeko, eta, bestetik, noiz jarriko diren indarrean trans arloan lehen mailako arreta emateko zerbitzuak eta Transexualitatearen Arretarako Unitate Espezializatua. Azken xedapen gehigarria arau honen ebaluazioari eta berrikuspenari buruzkoa da, eta eskumen hori gizarte-politiken arloan eskuduna den Eusko Jurlaritzako sailari dagokiola ezartzen da. Azkenik, azken xedapenetan gaitasuna ematen zaio Jurlaritzari legea garatzeko, eta ezartzen da araua indarrean jarriko dela Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

4 — Metodologia

Diagnostikoa egiteko erabili den metodologia kualitatiboa izan da. Herri mailako irakurketa orokor bat garatu nahi izan da, eta horretarako, herriaren ezagutza, esperientzia, irakurketa partekatuak, aurrekariak... ezinbesteko elementuak dira idiosinkrasia eta aldaketak hautematerako momentuan. Horregatik, beharrezkoa izan da eragile eta norbanakoen bizipen eta sententzioak jasotzea. Beraz, metodologia kualitatiboa aukeratu izanaren arrazoi nagusia horixe izan da, alegia, sakoneko informaziora iritsi eta parte-hartzaileentzat garrantzitsua eta adierazgarria den kontakizuna jasotzen saiatzea.

Hau guztia jasotzeko, hiru ikerketa metodo erabili ditugu. Lehena, taldeko lan-saioak, batik bat, beraien bizipen pertsonalak partekatzeko asmoarekin. Bigarrenik, elkarrizketa sakonak ere gauzatu ditugu, banaka zein bi edo hiru kiderekin, hausnarketa bizipen eta esperientzietatik jarduteko aukera emateko. Gainera, herrian garrantzia berezia duten espazioen behaketa ere egin dugu, kasuen analisirako.

Azkenik, jarraian azalduko diren espazio berrien sorrera egin dugu diagnostiko guztiaren prozesua oinarri parte hartzailean izan dadin, alegia, talde motore, kontraste espazioa eta formazio espazioaren sorrera egin da.

Aurrerago sakonduko dugu diagnostiko honetan erabiliko den terminologiaren garrantzia zertan datzan. Sarrera modura, garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea terminologiak izaera politikoa duela eta beraz, tasinguru zehatz batzuetan terminologiaren esanahia aldatu egiten dela momentuko beharrak erantzun ahal izateko. Bestetik, amaitzeko, landa-laneko atalean azalduko diren espazioetatik hartu ditugu txosten guztian azaldutako zitak.

Batzuk, indibidualak izan dira eta beste batzuk aldiz, kolektiboak. Diagnostikoaren izaera parte hartzailea errespetatuz Oñatiko LGTBIQ+ kolektiboko kideek modu ezberdinean eta leku ezberdinetatik hartu dute parte prozesuan. Beraz, izendapen berdinak parte hartzaileak izan diren espazio ezberdinetan topa ditzakegu.

4.1. Landa Lana

4.1.1. GALDETEGIAK

Ikerketa honen barruan galdetegiak tresna garrantzitsua izan dira, informazioa biltzeko erabilgaitako metodologiaren artean. Galdetegien bidez, alde batetik, anonimotasuna bermatzeko aukera izan da, eta horrek erantzule askori segurtasun handiagoa eman die beren bizipenak eta pertzepzioak partekatzeko orduan. Bestetik, tresna honek aukera eman du elkarrizketa presentzialen bidez heltzea zailagoa izan zitekeen pertsona-profilengana iristeko, bai denboragatik, bai kokapen geografikoagatik, bai ikusgarritasunarekiko distantziagatik.

Erantzunen analisiak erakusten du galdetegietan parte hartu duen jendearen adin-tartea batez ere heldu gazteetan kokatzen dela. Parte-hartze handiena 30 eta 35 urte bitarteko pertsonen artean eman da, eta, oro har, 25 eta 35 urte arteko adin-tartea da pisu handiena hartu duena. Datu horrek iradokitzen du belaunaldi horrek interes berezia izan duela diagnostikoan parte hartzeko, bai bizi-esperientzia propioengatik, bai herriarekin eta LGTBIQ+ komunitatearekin duen loturagatik.

Autoidentifikazioari dagokionez, galdetegiei aniztasun nabarmena islatu dute. Parte-hartzaileek identitate eta izendapen ugari erabili dituzte beren burua definitzeko, eta horrek agerian uzten du LGTBIQ+ errealitatea ez dela homogenea, ezta kategoria bakar batean kabitzen den zerbait ere. Hala ere, erantzunen pisu nagusia bollera eta gay gisa identifikatzen diren pertsonengan pilatzen da, nahiz eta bestelako identifikazioak ere agertu diren, hala nola bisexualak, pansexualak, queer edo bestelako posizionamenduak. Aniztasun horrek diagnostikoari aberastasuna ematen dio, eta kolektiboaren barne-komplexutasuna hobeto ulertzeko aukera eskaintzen du.

Azkenik, galdetegien helburu nagusietako bat Oñatitik kanpo bizi diren oñatiarrengana iristea izan da, sexilioaren esperientziak ere jaso ahal izateko. Ildo horretan, jasotako datuek erakusten dute erantzuleen %24k gaur egun Oñatitik kanpo bizi direla, eta %12k, berriz, Oñatitik kanpo bizi arren, denboraldiak herrian igarotzen dituztela. Informazio horrek aukera eman du

herritik kanpo bizitzera joan diren pertsonen bizipenak eta motibazioak ere kontuan hartzeko, eta, horrela, LGTBIQ+ pertsonenbizigarritasunari buruzko irakurketa zabalago eta osatuagoa egiteko.

4.1.2.

ELKARRIZKETAK

Herriko LGTBIQ+ kolektiboaren parte diren 8 norbanako elkarrizketatu ditugu. Parte-hartzaile bakoitza eta bere testigantzak gakoak dira Oñatiren erradiografia ahalik eta errealena izateko. Norbanako batzuekin elkarrizketa bat baino gehiago burutu ditugu informazioaren jarraipen eta kontrastea egin ahal izateko. Dosier honetan erabiliko ditugun parte-hartzaileen zitak kodifikatu egin ditugu, arestian esan bezala, beraien anonimotasuna errespetatze aldera. Iraupena, beharrei egokitu gara.

4.1.3.

EZTABAIDA TALDEAK

Metodologia honetan talde eztabaidak bere pisua izan du. Kasu honetan, emakume bollera eta bisexualekin egindako talde eztabaida izan da. Bertan parte hartu dutenen zitak jaso genituen eta diagnostiko honen zati garrantzitsu bat ordezkatzeko dutela esan dezakegu. Jarraian, talde eztabaida hauetan parte hartu dutenen anonimotasuna errespetatzeko aldera, kodifikatu egin ditugu. Homosexualekin y gizon birekin saiatu gara egiten baina ezinezkoa egin zaigu. Gomendagarria litzateke da aurrerago egitea.

4.1.4.

INSTITUZIOAK

Herriko zenbait instituziorekin lan-saio eta elkarrizketak egin dira, 3 erakunde guztira: Oñatiko osasun zentroa, Udala eta Zehar errefuxiatuen zentroarekin, bakoitzak bere arlotik edo begiradatik kontatzeko duena jasotzeko asmoz. batzuekin behin baino gehiago bildu gara informazioan sakondu eta kontrastea egiteko.

A) Udala

Udalari dagokionez, 3 talde elkarrizketatu ditugu. Udalarekin duten lotura leku ezberdinetatik izatea bilatu dugu, langile edo teknikari moduan batzuk, eta udaleko politikari moduan, besteak. Gainera, analisi unitate bezala, herri mailan edonolako balioen transmisioa egiteko gaitasuna duten espazio, norbanako, eragile, jarduera eta dinamikak aztertzen saiatu gara, bereziki, eta, adierazle bezala, balio berdinzaileen transmisioa eta inpaktua zein den neurtu nahian. Azkenik, urtarrilean politikariekin txostenaren azken aurkezpena egingo dugu.(he-men agian sartu beharko litzateke urtarrilean politikariekin egingo dugun bilera?

B) Osasun Zentroa

Osasun zentroari dagokionez, beraiekin bildu ginenean bertako langileriaren zati bat or-

dezkatzen zuen profesionalekin egin genuen topo. Gutxi gora-behera 15 langile izan ziren bilera honetan. Bilera honek, ordu beteko iraupena izan zuen, profesionalek beraien ikuspuntuak eta bizipenak behar bezala biltzeko aukera eduki genuen. Hainbat lan-ildo mahagaineratu genituen. Beraien esperientziak jasota osasun-zentroak izan dezakeen izaera aliatua indartuz.

C) Zehar Errefuxiatuen Zentroa

Zehar Errefuxiatuen Zentroan hiru teknikarirekin bildu ginen. Aurretiaz, telefonoz hitz egin ondoren, beraiekin biltzeko aukera eduki genuen. Bertan, ordu beteko bilera burutu genuen. Zentroko profesionalekin batera LGTBIQ+ erronkak identifikatzen saiatu ginen. Gainera, informazioa eskuratu genuen zentroko LGTBIQ+ errealitatea nolakoa den jakiteko.

4.1.5.

KONTRASTE ESPAZIOAK

Jarraian, kontraste espazioa zertan datzan zehaztuko dugu. Diagnostiko honetan hartu den erabaki oro kontraste espazioan landu eta oniritzia lortzeko eratu zen. Prozesu osoan zehar momentu zehatzetan deitu da kontraste espazioa. Talde motorean hartutako erabakiak kontraste espazioan landu eta diagnostikoarekin aurrera jarraitzeko asmotan. Zehazki, bi kontraste espazio egin ditugu. Lehena, 2025eko urriaren 30ean eguerdiko 14:00etan eta beste egun berean arratsaldeko 20:00etan. Amaitzeko, aipatzea beharrezkoa iruditzen zitzaigun sexiliatuta daudenekin harremanetan jarri garela. Hori horrela, beraien prozesua errespetatuz ordezkapenik ez dugula lortu esan dezakegu. Izan ere, hauek diagnostiko honen parte direla irmoki adierazi nahiko genuke.

4.1.6.

FORMAZIO ESPAZIOAK

Azkenik, formazio espazioen sorrera eman da. Espazio hauen helburu nagusia Oñatiko herrian topa ditzakegun eragile, talde edo espazio ezberdinetan parte hartzen duten herritarren formazioan sakontzen laguntzea da. Kasu honetan, formazio saio bakarra egin da. Zehazki, 2025eko maiatzaren 5ean izan zen. Bertara, Mer Gomez aktibista queer eta intersexuala bertaratu zen bere liburuaren aurkezpena egitera eta Klaudia Ugarte aktibista trans-a ere. Honekin batera, plazerarekin lotutako jardunaldiak egin ziren, esan bezala, 2025eko maiatzaren 7an.

4.2.

Talde motorearen beharra eta lidergoa

Arestian azaldu bezala, diagnostiko honen prozesua parte hartzailea izatea nahi zen. Horretarako, garrantzitsutzat jo da prozesua bera herriko LGTBIQ+ pertsonen gidatutakoa izatea. Hori horrela egin ahal izateko, beharrezkoa izan da talde motore bat osatzea. Talde honetan

herriko LGTBIQ+ kolektiboko kideak eta udalaren ordezkaritza teknikoa egon da. Honela, udalak herritarrekin batera diagnostiko hau aurrera eramateko aukera izan du. Talde motore hau izan baita diagnostikoaren nondik-norakoak zehaztu eta gorpuztu dituen eragile nagusia. Hori horrela, talde motoreak momentu ezberdinetan bildu da. Prozesu osoaren jarraipena behar bezala egiteko beharrezkoa izan da behin baina gehiagotan biltzea taula honen bitartez ikusi dezakegu zenbatetan bildu den talde motoreak.

EGUNA	ORDUA	BILERA MOTA
Irailaren 5a	19:00	Talde Motorea
Irailaren 24a	18:00	Talde Motorea
Azaroaren 5a	19:00	Talde Motorea

4.3. Profilen Kodifikazioa

Beheko taulan diagnosian parte-hartu duten pertsonen profilak zehaztu dira. Profilak definitzerako orduan hainbat aldagai hartu dira kontuan; adina, norbanakoaren auto-definizioa eta parte hartu duten eremua. Ez hori bakarrik, prozesu honetan parte hartu dutenen anonimitasuna errespetatze aldera, kodifikatu egin ditugu beraiek egindako ekarpenen zitak. Jarraian egindako taulan ikusi dezakegu, metodologiaren oinarri izan den lana.

KODIGOA	ADIN-TARTEA	PARTE HARTU DUEN ESPAZIOA
B1	Gaztea ⁴	Eztaibada Taldea
B2	Gaztea	Eztabaida Taldea
B3	Gaztea	Eztabaida Taldea
B4	Gaztea	Plazer Jardunaldiak
BS1	Ertaina	Eztabaida Taldea
MK1	Ertaina	Banakako Elkarrizketa
MK2	Ertaina	Banakako Elkarrizketa
MKE1	Gaztea	Banakako Elkarrizketa
MKE2	Gaztea	Banakako Elkarrizketa
MK3	Gaztea	Banakako Elkarrizketa
BS2	Ertaina	Banakako Elkarrizketa
ET1	Gaztea	Banakako Elkarrizketa
EH1	Gaztea	Eztabaida Taldea

⁴ Gaztea esaten dugunean, 15-29 urte bitarteko herritarrei egiten diegu erreferentzia (Eustat, 2021)

4.4.

Ohar Metodologikoak

Ohar metodologikoei dagokionez, bi identifikatu ditugu. Batetik, intersekzionalitatearen falta estrukturala eta besterik, hitz terminologikoen garrantzia.

4.1.1.

HITZ TERMINOLOGIKOAK

Diagnostiko honen marko teorikoan azaldu den bezala, politizazio-prozesuek eragin zuzena dute LGBTBIQ+ pertsonen identitateetan: norbere orientazioa, genero-adierazpena eta harremanen antolaketa ez dira dimentsio pribatu hutsak, baizik eta testuinguru sozial eta kulturalak modu aktiboan moldeatzen dituen eremuak. Hori dela eta, parte-hartzaile batzuek euren burua nola izendatzen duten ez da eranskin linguistiko bat, posizio politiko eta existentzial baten adierazpena da.

Horregatik, beharrezkoa da "lesbiana" eta "bollera", edo "gay" eta "marika" bezalako terminoen arteko ezberdintasunak zehaztea. Ez ezberdintasun terminologikoagatik, baizik eta parte hartu duten pertsonen beren burua nola kokatzen duten errespetatzea delako. Aipatutako hitzek ez dute esanahi bakarra, ezta bizipen unibertsal bat ere; baina bai adierazten dute politizazio-maila, desobedientzia estetiko eta afektiboak eta genero eta desiraren arau diziplinatzaileekiko posizio kritikoa.

Zenbait parte-hartzaileentzat, "bollera" edo "marika" izendapenak ez dira ofentsaren aurkako birjabetze hutsa; heterosexualitate inposatuaren eta generoaren arau zorrotzen aurkako hautu politiko bat dira. Mugimendu transfeministetan ohikoa den moduan, hitz horiek erabiltzea gorputz disidenteen desira eta harremanak erdigunean jartzeko modu bat da. Gauza bera gertatzen da "marika" hitzarekin. Marika izendatzea maskulinitate hegemonikoaren aurkako posizio aktiboa izan daiteke, feminitatea edo ez-maskulinitasuna gorputzeko aukera legitimo gisa aldarrikatuz.

Beraz, diagnostikoan "marika" edo "bollera" erabiltzearen arrazoia ez da gure aukeraketa; parte-hartzaileek beraiek horrela izendatu dutelako euren burua, eta horren esanahia politikoa baita, ez estetikoa bakarrik. Horregatik, diagnostiko osoan zehar bollera, marika, lesbiana eta homosexual hitzak erabiliko dira esanahiaren eta konnotazio politikoaren arabera.

4.1.2.

INTERSEKZIONALITATEAREN BEHARRAZ

Hala ere, izendapen hauen birjabetze politikoa ezin da modu homogeneoan ulertu. Ikuspe-

gi interseksionalak gogorarazten digu identitate kategoria bakoitza ez dela inoiz isolatuta agertzen. Klasea, arraza/jatorria, gorputzaren normatibitatea edo migrazio-egoera gurutzatzen direnean, hitz berak esanahi eta arrisku ezberdinak har ditzake (Crenshaw,1989). Hau da, bollera edo marika izendatzeak ez du esanahi bera emakume euskaldun, zuri eta klase ertaineko batentzat, jatorri migratua duen pertsona arrazializatu batentzat, gorputz ez-normatiboa duen norbaitentzat edo prekarietate ekonomikoan bizi den LGTBIQ+ gazte batentzat.

Diagnostiko honen mugen artean, ez dugu behar adinako ordezkariarik lortu jatorri migratua duten pertsonen, adin oso gazteen edo oso helduen, ez-bitarren edo trans maskulinoen kasuan. Horrek esan nahi du hemen azaldu diren izendapenen esanahi politikoak posizionamendu sozial zehatz batetik formulatu direla gehienbat. Horregatik, atal hau ez da baieztapen orokor eta itxi bat, ikuspegi kokatua da eta zintzotasunez hutsune batzuk aitortzen ditu.

Ondorioz, atal honen amaieran beharrezkoa da honakoa baieztatzea: diagnostiko honek ez du LGTBIQ+ subjektu guztien errealitatea jasotzen, ikuspegi espezifiko bat baizik, eta honek baditu mugak. Izendapenak, botere-harremanak eta zapalkuntza formak ulertzeko, ezinbestekoa da interseksionalitatea etengabe txertatzea eta etorkizuneko ikerketetan aniztasun sozial eta kultural handiagoa sartzea. Oñatiko LGTBIQ+ errealitatea hemen jasotakoa baino konplexuagoa da. Testu honek gerturatze bat besterik ez du osatzen, eta kolektiboaren ahots gehiago eta anitzagoak integratzea erronka gisa planteatzen da.

LGTBIQ+

diagnostikoa



“Ez dugu datuak bakarrik bildu;
Oñatiko LGTBIQ+ pertsonen
bizitzak, sentipenak eta
borrokak jaso ditugu. Haien
ahotsak mapa emozional bat
osatzen du.”

5 — Emaizak

Oñatiren errealitatea hainbat elementu sozial, kultural eta historikok osatzen dute; horiei guztiei herriaren idiosinkrasia deitu diezaiekegu. Idiosinkrasia ulertu genezake, beraz, herri batek denboran zehar metatzen dituen balio, praktika eta iruditeria partekatuen multzo gisa eta multzo horrek baldintzatzen du, neurri handi batean, komunitateak bere burua nola irudikatzen duen eta norberak herriaren parte izatea nola bizitzen duen (Williams, 1977). Diagnostiko honen testuinguruan, antzeman daiteke elementu horietako batzuk lagungarriak izan daitezkeela LGTBIQ+ pertsonen bizitzak bizigarriago egiteko, eta beste batzuk, berriz, erronka edo muga bihurtzekoela identitate eta gorputz disidenteentzat.

Atxikimendua idiosinkrasiaren erdigunean kokatzen den beste elementu bat da, herri baten eta bertako biztanleen arteko lotura afektibo eta soziala. Benedict Anderson (1983) eta Raymond Williamsek (1977) azaldu duten moduan, pertenezia-sentimendua ez da soilik lurralde kontua, baizik eta komunitate imajinatu baten parte sentitzea, espazio sozial eta sinbolikoen bidez eraikia dena. Oñatiren kasuan, atxikimendu hori ere ez litzateke neutroa. Heteroarauak, familia nuklear hegemonikoak eta herriaren iruditeri estetiko eta moralak baldintzatzen dute nork eta nola senti dezakeen oñatiarraren figura horren parte izatea.

LGTBIQ+ pertsonentzat, beraz, atxikimendua ez litzateke soilik non bizi den adierazten duen dimentsio bat; onartua, ikusgai eta bizigarria den espazioa eraikitze prozesu afektibo eta politiko baten parte izan liteke ere. Zentzu honetan, atxikimendua tresna baliagarria izan daiteke LGTBIQ+ herritarren herritartasun soziala ulertzeko, hau da, herriak zein modutan egiten dien leku, nola ikusten diren, eta zein egoeratan senti daitezkeen sarbidean edo bazterketan.

“Herriko jende askok inertziaz egiten ditu gauzak, horien artean familia, betiko jaiak, futbola, corpora...” (ET1)

Guzti hau kontuan hartuta, diagnosiak ondorengo ezaugarriak joera gisa identifikatu ditu. Ez dira kategoriak edo definizio itxiak, baizik eta Oñatiren egitura soziala ulertzeko lagungarri diren elementuak:

- Tradizionala eta kontserbadorea
- Familia nuklearrekoa
- Ederra, maskulinoa eta dotorea
- Industrial
- Kirolzalea
- Aktiboa eta politizatua
- Euskalduna
- Harrera herria

Halaber, beharrezkoa da azpimarratzea diagnostiko honek eskaintzen duen irudia gerturatze bat dela, eta ez errealitate osoaren isla. Herriko aniztasuna nabarmena bada ere, oraingo fasean parte-hartze eta elkarrizketa prozesuek ez dituzte errealitate guztiak bere osotasunean jaso⁵. Horrek esan nahi du ondorio batzuek Oñatiko eredu hegemonikoaren inguruan antolatzen direla, eta litekeena dela bestelako errealitate batzuk gehiegizko isiltasun edo ikusezintasun mailan geratu izana. Etorkizuneko estrategiak diseinatzerakoan, beraz, intersektionalitatea izango da gakoetako bat, diskriminazioak eta bizipenak ez direla homogeneousak eta dimentsio anitzek baldintzatzen dituztela kontuan hartzeko.

5.1. Herriaren idiosinkrasia

5.1.1.

TRADIZIONALA ETA KONTSERBADOREA

Oñatik, Euskal Herriko beste herri askok bezala, erlijioak, tradizioek eta joera kontserbadoreek markatutako historia luzea du. Euskal antropologiak erakutsi bezala, herri askotan eguneroko praktikak eta komunitatearen antolaketa errituen, ohituren eta eguneroko arau moralen bidez egituratu izan dira (Del Valle, 1993). Testuinguru horretan, ulergarria da Oñatin ere erlijioaren eta tradizioaren presentziak pisu sinboliko eta sozial nabarmena izaten jarraitzea.

Iruditeria kolektiboan San Migel elizaren presentzia, Corpus prozesioa edo urteko ospakizun erlijiosoak ez dira soilik erritu espiritualak; komunitatea antolatzeko eta harremanak egituratzeko uneak ere badira. Euskal Herriko ohiko logiken ildotik, erritu hauek belaunaldiz belaunaldi transmititu dira eta, neurri batean, herriaren nortasunaren parte bihurtu dira.

Del Vallek (1993) azpimarratzen duen moduan, ohitura eta tradizioak ez dira inoiz neutroak; botere-harremanen, genero-rolen eta desiraren antolaketa sozialaren parte aktiboa dira. Ildo berean, Miren Guillók (2007) erakutsi du tradizioaren izenean maiz naturalizatu egiten direla genero-ordena jakin batzuk, eta horrek komunitatearen barne-mugen konfigurazioan eragina duela. Zentzu honetan, Oñatin ere antzeman daiteke tradizioaren izenean bizitza soziala ordenatzeko modu batzuk erreproduzitu daitezkeela, eta bestelako identitateentzat (tartean LGTBIQ+ pertsonentzat) nabigazio konplexuagoa sor dezaketela. Ez da zertan modu esplizituan gertatu, baina bai eguneroko dinamiken bidez, hala nola, igandeko poteoan, herriko jaietan, kirol jardueretan edo aisialdiko espazioetan kolektiboko kideek maiz adierazi dute muga horren presentzia.

“Igandeetan plazan denak dira familiak poteatzen. Lanetik ateratzen zara eta inguruan dena dira familia heteroak umeekin paseatzen. Azkenean, herria bera bihurtzen da familia hori.” (MK1)

Honek ez du esan nahi tradizioa bere horretan arazoa denik; baina gerturatze analitiko honek erakusten du balitekeela ohitura eta balio jakinek espazio erosoagoak sortzea identitate hegemonikoentzat, eta ikusgarritasun mugatuagoa edo tentsio afektiboak eragitea bestelako identitateentzat. Jardunbide hauek komunitatearen batasuna eta jarraikortasuna indartu ditzakete, baina batzuetan, modu ez-absolutuan bada ere, parte-hartze desoreka batzuk ere sor ditzakete.

5.1.2.

FAMILIA NUKLEARREKOA

Jakina da Euskal Herriko herri gehienetan familia biologiko nuklearrak presentzia handia izan duela komunitatearen antolaketan. Familiarena ez da soilik egitura emozional edo afektibo bat, baizik eta komunitatearen transmisio, jarraikortasun eta kontrol sozialaren oinarritzko instituzioa (Del Valle, 1993; Zulaika, 1988). Horregatik, tradizioaren eta erlijioaren eraginez, familia nuklear heterosexuala askotan aurkezten da normaltasunaren eta bizitza egokiaren eredutzat. Ereduek, aurreko atalean azaldutako tradizioaren pisuarekin batera, Oñatiren iruditeria kulturala eta harreman sozialak markatu ditu luzaroan. Testuinguru horretan, diagnostikoan parte hartu duten herritar askok, Oñati familiarekin lotzen dute, bereziki familia biologikoarekin eta erreprodukzioaren logikarekin.

Horrek guztiak, LGTBIQ+ identitate eta gorputzentzat erronka batzuk ere sor ditzake. Zenbait parte-hartzailek adierazi dute familiekin lotutako iruditeriak batzuetan presioa, ikuskatzea edo mugak ere sor ditzakeela norbere desira, identitatea edo harremanak modu askean adierazteko:

“Denok dakigu nor den noren familia, eta horrek behartzen zaitu kontuz ibiltzera. Azkean, nahi ala ez, zure bizitzaz familia osoak jakingo du.” (B1)

Beste zenbait kasutan, elkarrizketatuek “umezurtz-sentsazio” modukoa deskribatu dute. Familia nuklearrean ez badaude eroso edo eredu hori ez bada haien bizi-proiektuaren parte, hutsune bat sortzen zaie herriko eguneroko eszenetan. Poteoan egon arren, lagunekin terraza batean sozializatu arren, askotan iruditeri kolektiboak familia heterosexuala ulertzen du espazio publikoaren neurri gisa; eta, ondorioz, beste elkartzeko eta zaintzeko moduak ez dira beti bizitza egoki edo normala denaren parte gisa ulertzen.

Hala ere, hutsune horrek ez du soilik muga bat adierazten, askorentzat, lagunartea, hautatutako senidetasuna edo familia politikoak bihurtu dira identitatea, babesa eta zaintza antolatzeke espazio nagusiak. Nuria Labarik (2015) bere lanetan erakutsi duen moduan, gaur egungo harreman-ereduetan familia ez da zertan bakarrik lotura biologikoan oinarritu, lagunaren arteko sareek, intimitate partekatuek eta elkar zaintzeko praktikek ere familia baten zentzu afektibo eta sinbolikoa hartzen dute. Idazleak proposatzen duen familia-ulermen zabalago horrek bat egiten du diagnostikoan agertu denarekin. Oñatin, familia biologiko

nuklearrarekin identifikatzen ez diren pertsonentzat edo eredu horretan lekurik topatzen ez dutenentzat lagun-sareak eta harreman afektibo politikoak bihurtzen dira bizigarritasuna sostengatzeko oinarri nagusietako bat.

Beraz, Oñatin familia nuklearrak duen erdigune sinbolikoak eta familia politikoaren presentziak tentsio produktibo bat sortzen dute. Alde batetik, herriak oraindik ere gidari dituen ohiko kode eta sozializazio-ereduak daude; bestetik, bizitza eta harremanak antolatze modu berriak, askotan LGTBIQ+ komunitatearen eskutik sortu eta indartu direnak. Bi dinamiken arteko elkarreragina ez da beti erraza, baina bai agerian uzten duela herrian bizitzeko moduak aldatzen eta aberasten ari direla.

5.1.2.1.

GU BETI BISITARI

Gainera, diagnostikoan jasotako testigantzek iradokitzen dute familia nuklearraren inguruan antolatutako kodeek eragin handia dutela herritarren pertenezia-sentimenduan. Zentzu honetan, familia-eredu hegemonikotik kanpo daudenek atxikimendua modu konplexuagoan esperimenta dezaketela adierazten dute zenbait bizipenek. Nola? Lehenik, aitortza sinbolikoaren mailan. Herriko jai, erritu zibil eta diskurtso ofizial askotan familia tradizionalkaren iruditeria ageri da. Ez dira soilik ospakizun kulturalak, bertako izatearen markatzaile sinbolikoak ere badira. Corpusaren desfilea adibidez, erlijioarekin lotutako iruditegia indartzeaz gain, urteetan zehar familia nuklear heterosexualek presentzia zentralaren erakusgarri izan da, bazkarien eta ohituren bidez. Horrek ez du esan nahi espazio horiek guztiz itxiak direnik, baina bai zenbait herritarrek adierazi dutela errazago kokatzen direla familia-eredu horren inguruan antolatutako parte-hartzeetan baino.

Bigarrenik, sarbide material eta sozialetan. Atxikimenduaren esperientzia ez da sinbolikoa soilik, kultur eta aisialdiko parte-hartze asko sare informaletan antolatzen dira. Sare horiek, askotan, ezkutuan heteroarauaren logiketan funtzionatzen dute. Alegia, nor gonbidatzen den, nola eta non sozializatzen den, zein espaziotan parte hartzea naturaltzat jotzen den... Horrek aukera desberdinak sor ditzake. Batzuek sarbide errazagoa dute eta beste batzuek, berriz, parte-hartze murriztuagoa edo baldintzatuagoa esperimentatzen dute. Testigantza batzuetan iradoki izan da atxikimendu-sare horiek birsortu egiten direla. Hau da, bertan eroso kokatzen diren herritarrek ikusgarritasun eta parte-hartze handiagoa dute, eta horrek berriz ere bertakoa izatearen definizioa estutu dezake. Eredu hegemonikotik kanpo daudenek, aldiz, tarteko esperientzia bat bizi dezakete. Alegia, herrian bizi eta ekarpena egin arren, batzuetan ez dira guztiz integratuta sentitzen ohitura eta sare jakin batzuetan.

Guzti honen eraginez, diagnostikoan agertu den esperientzia errepikatuenetako bat da "beti bisitari" izatearen sentsazioa. Ez da inola ere baieztapen orokorra, baina zenbait herritarrek modu nabarmenean deskribatu dute. Sentipen hori ez da faktore bakar baten ondorioa; aitzitik, hainbat elementuren gurutzetik sortzen den egoera da, hortaz, espazio publikoan libre mugitzeko ziurgabetasun sotil bat, jai edo ohitura jakin batzuetan dese-

roso sentitzea, familia heteronormatiboek duten presentzia sozial sendoak eragiten duen kontrastea, edo bertakoa izatearen iruditeriak batzuetan eskaintzen duen toki mugatua. Horren ondorioz, pertsona batzuek herrian bizi, lan egin eta parte hartu arren, ez dute beti erraza izaten Oñati bere gisa guztiz sentitzea.

“Ni ez naiz oñatiarra, eta berdin zait familia eta tradizioaren presioa. Baina Oñatiko jendearentzat beste kontu bat da. ‘Oñatiko gauzak’ egiten ez badituzu, arraroa edo kanpokoak zara.”(MK1)

“Askotan hemengoa ez banintz bezala sentitzen naiz. Ez dakit sentitzen naizen edo sentiarazten nauten.”(BS1)

Eremu batzuetan, presio normatibo horiek autokontrola edo ikusgarritasuna neurtzea eragin dezakete. Ez beti modu esplizituan, askotan espazioen logikak berak markatzen duelako:

“Denok dakigu bikotea direla, baina inork ez daki. Ulertzen duzu?”(B2)

“Plaza erdian musukatzen naiz edo nire luma guztiarekin poteatzen dut, baina badakit begiratuko didatela. Ez naiz ezkututzen, baina politikoa delako niretzat.” (MK2)

5.1.3.

EDERRA, MASKULINOA ETA BETI DOTORE

Oñatin, beste testuinguru askotan bezala, estetika ez da itxurari buruzko xehetasun hutsa; genero-identitatea eta onarpen soziala antolatzeke mekanismo sotil baina eraginkorra ere bada. Judith Butlerrek (1990) azaldu bezala, genero-adierazpenak ez dira soilik norbanakoaren aukerak, baizik eta arau sozialek moldatzen dituzten praktikak. Hau da, zein gorputz eta janzkera jotzen diren egoki, eta zein desbideratutzat. Logika hori modu nabarmenean ikus daiteke Oñatin ere, non itxura eta portaera jakinek markatzen duten nor kokatzen den generoaren barruan eta nor bazterrean.

Testuinguru honetan, estetikaren presioa ulertu liteke jarrerak eta estiloak arau sozial hegemonikoetara egokitzea bultzatzen dituzten indar multzo gisa (Bartkyk,1990; Bordok, 1993). Fenomeno hori ez da neutrala, feminitate egokia eta gizontasun zuzen gisa hartzen diren ereduak orientatzen dute zer den desiragarria, errespetagarria edo normal herriko egunerokoan. Hortik kanpo geratzen diren gorputzek, horien artean, indartsuegi iruditzen diren emakumeek, femeninotzat hartutako gizonak, bollerek, marikak, trans pertsonak edo itxura ez normatiboak dituzten herritarrek. Maiz sentitu izan dute arau hori zalantzan jartzeak erantzun sozial bat dakarrela. Izan begirada zorrotzak, izan distantzia soziala, izan txantxak edo izan serio ez hartzea.

Atal honetan, beraz, ikusiko dugu nola emakumeen edertasun hegemonikoaren mitoak eta gizonen indar eta zuzentasunaren irudiek elkar elikatzen duten Oñatiko egunerokotasunean, eta nola egitura estetiko horrek mugatu dezakeen gorputz eta identitate disidentearen bizigarritasuna. Helburua ez da epai normatiboa egitea, baizik eta herritarrek partekatutako esperientzien bidez ulertzea nola antolatzen den kontrol sozial sotil hori eta zein ondorio izan ditzakeen LGTBQ+ komunitatearen kasuan.

5.1.3.1.

EMAKUME "ESTUPENDA", BOLLERA DISIDENTEA

Elkarrizketetan sarri agertu da Oñatin genero-kategoriak nahiko modu zurrunean irudikatzen direla. Emakume izatea eta gizon izatea ez dira espektro zabal baten parte bezala bizi, baizik eta itxura eta jarreraren bidez markatutako erregimen nahiko definitu baten barruan. Ez da arau esplizitua, baina bai herriko eguneroko praktiketan eta begiradetan antzematen duten joera orokorra.

Horren ondorioz, emakume izateko moduak ere oso zehaztuta agertzen dira askotan. Esaterako, ile luzea, gorputz argala, janzkera zaindua, neurrizko jarrera eta atsegintasuna uzartzen dituen irudi bat. Ez da emakume guztiek betetzen duten eredua, baina bai askok aipatzen duten itxaropen sozial esan-gabe bat, eta zenbait gorputz edo adierazpen estetiko hortik urruntzen direnean deserosotasuna edo seinalamendu sotila ager daiteke.

"Herritik paseatzen zara eta emakume guztiak berdinak dira... eta gero gu gaude." (EH1)

Horregatik, emakume izatearen inguruko kode horietatik aldentzen diren gorputzek maiz sentitzen dute zerbait markatzen dela. Hots, begirada epaituak, inozenteak diruditen komentarioak edo tarteka sortzen den isilune deserosoa. Horrek ez du zertan eraso zuzena izan, baina bai kontrol sozialaren forma bat, eta horrek askotan autozentsura sortzen du. Nola? janzkera egokitzen, gorputza ez hain nabarmen eramaten edo espazio publikoan modu jakin batean mugitzen.

Lesbianen eta gorputz ez-normatiboen (bereziki gorputz lodien) kasuan, presio estetikoaren eragina ere nabarmenagoa dela aipatu izan dute. Emakumetasun hegemonikotik aldentzen diren gorputzek maizago sentitzen dute begirada eta epai sotilen pisua. Testuinguru honetan, Monique Wittigen planteamendua lagungarri zaigu. Lesbianek, askotan, ez dute kokapen eroso aurkitzen heterosexualitateak eraikitzen duen emakume kategoriarren barruan, beraz sozialki lesbianak ez dira emakumeak (Wittig, 1980). Gure kasuan, zenbait bizipenek erakusten duten tentsioarekin bat datorren irakurketa posible bat.

"Ni heteroa naiz, baina Oñatin lesbiana modura sentitu izan naiz askotan... eta erosoago nago lesbianekin." (EH1)

Horrela, parte hartu duten lesbiana askorentzat, gorputza bera bihurtzen da erronka sotil baina esanguratsua eta Oñatin emakumetasun egokia zer den markatzen duen arau estetiko

koa zalantzan jartzen dute bere presentzia politikoarekin. Ez orientazio sexualaren adierazle hutsa delako, baizik eta generoari, desirari eta harremanei buruzko bestelako bizitza-modu posibleak imajinatzen eta egiten dituelako ageriko. Jakina, ez da beti ondorio dramatiko edo larrien moduan agertzen; hala ere, parte-hartzaile batzuek azaldu dute umorez zenbait unetan espazio publikoan edo herriko bizitza sozialean deserosotasuna sentitu izan dutela, edo, besterik gabe, Oñatiko emakume irudi hegemonikotik kanpo kokatzen direla sumatu dutela:

“Herriko itsusiak gara, lodiak, munstroak.” (B3)

Eguneroko esperientzia horiek ez dira soilik estetika kontuak; askotan, bizigarritasuna bera baldintzatzen dute: ea espazio publikoan seguru sentitzen diren, ea herriko dinamiketan parte hartzeko aukera berdina duten edo ea beren identitatearen adierazpena ez den zalantzan jartzen.

5.1.4.

BENETAKO GIZON PERFEKTUA

Aurretik emakumetasunaren idealizazioak nola funtzionatzen duen azaldu bada ere, haren pareko dinamika bat ikus daiteke gizonen kasuan: gizontasun hegemonikoaren indartzea. Jokin Azpiazuk (2014) edo Raewyn Connell-ek (1995) azaldu duten bezala, gizontasun hegemonikoa ez da gizonen errealtate anitzen deskribapen bat; gizon izateko modu posible guztien gainetik hierarkikoki antolatzen den eredu bat da. Indarra, autonomiaren mitoa, lehiakortasuna, emozio-kontrola edo heterosexualitate aktiboa bezalako ezaugarriak biltzen ditu, eta ezaugarri horiei jarraitzea saritu egiten da sozialki.

Oñatiko testuinguruan ere antzeman daiteke gizontasun hegemonikoaren logika hori, batez ere kirolarekin, jai-giroarekin eta espazio publiko maskulinizatuekin lotutako dinamiketan. Parte-hartzaile askok deskribatu dute gizon taldeen presentzia jarraitua, espazio sozialaren erritmoa markatzen duena eta, neurri batean, zein jarrera den egokia adierazten duena:

**“Beti daude gizon taldeak leku guztietan. Denak dira kirolariak eta Oñatiko mendi mar-
txetako kamisetekin daude poteatzen. Guztiak heteroak dira.” (BS1)**

Egitura horrek saritzen dituen kodeek (ausardia, ziurtasuna, lehiakortasuna eta rol nagusien okupazioa) eragina dute espazioaren erabileran eta boterearen banaketan, eta, era berean, bestelako gorputz eta adierazpen batzuek izan dezaketen zilegitasuna mugatzen dute. Hala ere, gerturapen honek ez du irudi monolitiko bat iradoki nahi. Parte-hartzaile batzuek aipatu dute gizon homosexual batzuk euren lekua topatzen ari direla maskulinitate hegemonikotik aldentzen diren espazioetan. Hau da, beste kirol batzuetan, dantzan, kultura-esparruan edo adierazpen artistikoetan. Praktika horiek aukera bihurtu zaizkie genero-adierazpen molde zabalagoak esploratzeko eta presio maskulinizatzaile txikiagoa duten

inguruneetan segurtasun eta bizigarritasun handiagoz egoteko.

Hori bai, genero-adierazpen ez normatiboak dituzten gizonak, hala nola, feminizatuak, luma dutenak, ez-bitarrak, trans gizonak edo marikak, askotan sentitzen dira seinalatuak edo gutxietsita, eta serio ez hartzeko arriskua handitu egiten da. Honek ez du adierazi nahi hori gertatzen den egoera bakarra denik; baina bai diagnostikoan parte hartu duten pertsona batzuek deskribatutako esperientzia errepikatuena dela. Eta esperientzia horrek eragin zuzena du parte-hartze eremuetan, laneko espazioetan edo lidergoan:

“Badakit bilera batera joaten naizen bakoitzean serio eta astuna jarri behar naizela. Soilik horrela kasu egiten didate” (MK1)

Teoria queerretik eta maskulinitateen estudioetatik egoera hau modu interesgarrian azaldu izan da. Hots, gizontasun hegemonikoak bere koherentzia heterosexualitatean aurkitzen du. Cristo Casasek (2020) modu argian planteatzen du marika izatea ez dela soilik bestelako desira bat edukitzea, baizik eta gizon hegemonikoaren ordena bera zalantzan jartzea. Hori dela eta, marika izateak arriskatu egiten du gizon zuzena irudikatzen duen markoa. Oñatin ere logika hori sumatu da. Homosexualek eta marikek ez dute zigortzen euren sexualitateagatik soilik, baizik eta beren gorputzak eta manierak gizon hegemonikoaren funtzionamendua desegiten duelako.

Azkenik ere nabaritu da homosexualitatearen barnean bertan bi posizionamendu sozial posible daudela. Batetik, badira gizon homosexualak heteroarauaren barnean guztiz integratzen direnak, maskulinitate normatiboarekin bat egiten dutelako eta beren harremanak modu diskretu eta zuzen gisa irudikatzen dituztelako. Ondorioz, herrian zilegitasun sozial handiagoa lortzen dutenak dira, eta, batzuen hitzetan, “homosexual onaren” figura osatzen dute.

“Badira gay asko hemen, baina ez dira marikak. Euren bizimodua oso ‘normala’ da: lana, pisua, bikote..., eta inork ez du zalantzan jartzen, politikoki zuzenak eta politak direlako homosexual horiek” (MK2)

Bestetik, marikek gorputzaren, genero-adierazpenaren edo desiraren bidez araua bera auzitan jartzen dutenez, disonantzia handiagoa sortu dezakete herriaren iruditeria estetiko eta moralarekin. Zenbait parte-hartzailek adierazi dute sarritan deseroso edo arriskutsu gisa irudikatzen direla espazio publikoan, eta horrek zaildu egiten du bai ikusgarritasun soziala, bai herriko atxikimendua.

Azken finean, bi irudi kontrajarri agertzen dira gerturapen honetatik:

- homosexual integratuaren eredua, herriko logiketan lekua aurkitzen duena
- marikaren figura disidente, zeinak mugitzeko eta antolatze baldintza zailagoak aurkitzen dituen.

Horrek azaltzen laguntzen du zergatik topatu den zailtasun handiagoa mariken mugimen-
du artikulatu bat egoteko⁶. Alegia, esan dezakegu, ez dela ikusgarritasun faltagatik soilik,
baizik eta herriaren orden sozialak berak ez duelako irudikatzen marika baten lekua bere
kolektibitatearen irudian.

5.1.4.1.

TRANS, EZ BITAR ETA QUEERREN IKUSGARRITASUN EZA

Oñatin generoaren polarizazioak gorputz eta identitate anitzak isilarazten ditu. Generoa
ulertzeko molde zurrunez ez dute tarterik uzten identitate ez-bitarrentzat edo genero-mu-
gak gainditzeko dituzten pertsonentzat; hortaz, trans pertsonen presentzia ia ikusezina
bihurtzen da. Generoaren binarismo horrek ez du soilik diskurtsoan eragiten, baizik eta
eguneroko harremanetan ere: laneko espazioetan, hezkuntzan edo aisialdian, “gizon edo
emakume egoki” izateko exigentziak gorputzaren eta existentziaren gaineko kontrol sotil
baina eraginkorra ezartzen du.

Horren ondorioz, trans komunitatearekin harremana jostea zaila izan da diagnostikoan.
Parte-hartze mugatua ez da interesa edo borondaterik eza, baizik eta segurtasun faltaren
eta bizirauteko estrategien isla, hau da, sexilioa, armarizazioa edo isiltasun taktikoa. Batzuk
Oñatitik kanpo bilatu behar izan dute arnasa eta babes, edo euren identitatea ezkutatu
dute eguneroko bizitzan.

Hala ere, azpimarratzekoa da osasun-zentroan trans pertsonentzako arreta- eta harrera-es-
kaera gero eta handiagoak jasotzen direla; horrek adierazten du errealitate hori herrian ere
badagoela, nahiz eta oraindik ikusgaitasun txikian eta babes instituzional mugatuan egon.

5.1.5.

INDUSTRIALA

Industria ez da soilik jarduera ekonomiko nagusia; herriaren antolaketa soziala, kulturala
eta emozionala baldintzatzen duen egitura historikoa da. EUSTATen eta Lanbideren joeren
arabera, Debagoieneko lan-merkatuko %35–40 inguru industriak hartzen du, eta litekeena
da Oñatin proportzio hori are handiagoa izatea bertako kooperatiba eta lantegi handien
presentzia dela eta.

Datu horiek lagungarriak dira ulertzeko industriak zein neurritan markatzen duen herriko
denbora soziala. Txandetan antolatutako erritmoek, goizaldeko mugikortasunek, bazkalor-
duen errutinak edo asteburuko deskantsu-ereduek herriaren egunerokoaren egitura sort-
zen dute.

Beraz, industriaren eragina ez da denborarena soilik. Espazioaren antolaketa bera ere bal-
dintzatzen du. Hala nola, garraio-fluxuak, zerbitzu osagarriak eta hornikuntza-katearen in-

guruan sortutako ehun ekonomikoa aktibatzen ditu. Denboran zehar, lanerako joan-etorri horiek eta fabrikak sortzen dituen errutinak iruditeria kolektibo bat eraiki dute Oñatin. Zein? Lanera joatea ez da jarduera ekonomiko hutsa, baizik eta balio partekatuak transmititzeko hizkuntza, diziplina, ardura, talde-lana eta zehaztasuna familietan, eskoletan eta aisialdian barneratzen diren kode sozialak bihurtzen dira.

Testuinguru horrek garrantzi berezia hartzen du kontuan hartuta herritar askoren diru-iturri nagusia industrietatik datorrela. Industria-egiturak ez du soilik ogibidea bermatzen; enpresa-sare zabala, ekintzailatza eta berrikuntza ere sustatzen ditu, eta herriaren egonkortasun ekonomiko eta fiskala indartzen du. Industriaren eragin hori are agerikoagoa da Oñatiren kasuan kooperatibismoak izan duen pisuagatik. Mondragon esperientziaren ildotik (Whyte & Whyte, 1991), kooperatibismoa ez da soilik ekoizpen-modu bat, baizik eta balio komunitarioetan oinarritutako filosofia: elkartasuna, erantzukizuna, parte-hartzea eta lurraldearekiko konpromisoa. Askotan, lantegiak dira enpresak baino gehiago, komunitatearen luzapen gisa bizi dira, non langileak ez diren behargin hutsak, erabakiak hartzen dituzten subjektu kolektiboak ere badiren. Horrek lanaren eta herriaren arteko lotura afektibo berezia sortzen du, eta Oñatin lan egitea identitate sozialaren parte bihurtzen du.

Lotura hori hain da sakona, ezen industriak herriaren atxikimendu emozionalaren eta sozializazioaren euskarri nagusietako bat bihurtu den. Fabriketan parte hartzeak ez du soilik soldataren bidezko segurtasuna eskaintzen; balio moralak ere sendotzen ditu, adibidez zintzotasuna eta ardura. Horregatik, lanaren eta herritartasunaren arteko muga sarritan lauso bihurtzen da. Industriak ez du soilik produktuak sortzen, baizik eta herriaren nortasuna bera egitura dezake.

Hala ere, ikuspegi analitikoago batek erakusten du kooperatibismoaren balio partekatu horiek badutela beste alde bat ere. Elkartasunaren eta denok bat gara diskurtsoaren azpian, uniformetasunerako presioa egon daiteke, eta harmoniaren izenean zenbait desberdintasun isilarazteko joera. Elkarriketetan jasotako testigantzek iradokitzen dute lanaren moral kolektiboak, nahitaezkoa ez bada ere, batzuetan desiratutako egokitzapen estetiko, afektibo eta sozial jakin bat saritzen duela.

Horregatik, LGTBIQ+ pertsonentzat, industria-giroa askotan kontraesaneko espazio moduan agertu izan da. Batetik, komunitatearen parte sentiarazten duen zutabe ekonomiko eta sozial sendoa; eta, bestetik, norberaren adierazpenerako edo identitate-disidentziarako muga sotilak sortzen dituen egitura. Balio kolektibo askatzaileek, zenbait kasutan, diziplina moralaren eta heteroarauaren errefortzu modura funtzionatu dezakete.

Diagnostikoan jasotakoaren arabera, industriak Oñatin hiru mekanismo nagusiren bidez eragiten die LGTBIQ+ bizipenei:

1. Armarizazioa: Lan-giro maskulinizatueta egokitzeko estrategiak: isiltasuna, autozent-

sura, diskrezioa eta identitatearen zati bat ezkutuan mantentzea.

2. Maskulinitatearen indartzea: Errendimenduaren eta diziplinaren bidez gizon zintzo eta egokia izateko presio sinbolikoa, eta horrek gorputz ez-normatiboengan duen eragina.

3. Industriaren harrotasun kolektiboa: Herriaren nortasun moral eta estetikoa antolatzen duen diskurtso sotila, zeinak normalitatea saritu eta bestelako bizitzak ertzera eraman ditzakeen.

5.1.5.1.

FABRIKA DA GURE ARMAIRUA

Industria-espazioak, nahiz eta gaur egun gero eta pluraltasun handiagoa izan, askotan giro jakin batez markatuta agertzen dira. Hau da, tonu formala, distantzia emozionala eta intimitate pertsonala neurtzeko ohitura. Egitura horrek ez du zertan esplizituki baztertzaileria izan, baina bai kondizio batzuk sortzen ditu, non zenbait pertsonak —bereziki LGTBIQ+ komunitateko kideek— identitatea norekin eta noiz partekatu behar den negoziatu behar izaten duten.

Diagnostikoan parte hartu duten zenbait lesbianek azaldu dutenez, industria ez da arazoaren jatorria, baina espazio horretan ezkutuko kode batzuk aktibatzen dira. Esaterako, nolako hizkera erabili, zein informazio partekatu edo noiz mantendu diskrezioa. Horregatik, batzuetan, ikusgarritasunaren eta zaurgarritasunaren arteko oreka kudeatzea bihurtzen da eguneroko lanaren parte.

“Denok imajinatzen dute lesbiana naizela, baina ez dut inoiz ‘nire neska’ esaten. Bikotea esaten dut. Oso eremu arrotza da.” (B3)

Sedgwick (1990) eta Yoshinok (2006) azaldu zuten moduan, armarizazioa ez da sekretu bat gordetzea soilik; baizik eta norberaren identitatearen zati batzuk espazioaren kodeetara egokitze modua. Oñatin ere, zenbait testigantzak erakusten dute kode horiek eguneroko keinu txikietan antzematen direla.

“Fabrikan ez dut inoiz nire desiraz hitz egiten. Ez dakit nola hartuko luketen. Baina gero, larunbat gauean plazan nago ikusgarri, eta parean nire lantegiko hiru tipo ikusten ditut. Bi ni: fabrikakoa eta kalekoa.” (B3)

Horrelako egoerak ez dira beti gatazka esplizitu baten ondorio; maizago gertatzen dira ohi-turazko egokitzapen sotilak aktibatzen direlako. Askotan markatzen dute zein presentzia sozial den eroso eta zeinek sortzen duen arreta gehiago. Beraz, horrela ulertuta, industria ez da soilik jarduera ekonomikoa; identitatearen kudeaketa soziala gertatzen den eszenatoki bat ere bada. Askorentzat egonkortasuna eta komunitate-sentimendua eskaintzen duen lekua da, baina beste batzuentzat diskrezioa eta egokitzapen maila bat exijitu dezake. Ez da ondorio orokorra, baina bai diagnostikoan zenbaitetan errepikatu den esperientzia.

5.1.5.2.

GURE IRLA MASKULINOA

Industria, bere egitura historikoetan, askotan gizonentzako espazio gisa antolatu izan da, eta horrek eragina izan du Oñatiko lantegietan ere. Connell-ek (1995) eta Collinson & Hearn-ek (1996) azaldu zuten lanaren antolaketa hierarkiko eta errendimentuzkoak joera duela maskulinitate hegemonikoa birproduzitzeko. Nola? Indarra, ziurtasuna, lehiakortasuna, umore misoginoa eta emozioen kontrol zorrotza saritzen dituzten kodeen bidez.

Parte-hartzaile gehienek deskribatutakoaren arabera, dinamika horiek, askotan modu naturalizatuan, espazioaren erritmoa eta giroa antolatzen dute:

"Fabrikan gehienak dira gizonak eta beti tonu berean, beti komentario berdinekin, beti txantxa misoginekin. Giro horrek ez dizu uzten arnasa hartzen eta ez da aldatuko". (B4)

Giro hori ez dute soilik lantokian sentitzen; askotan ere hedatzen da, identitatea komunitarioaren parte bihurtuz:

"Herriko gizon guztiek X enpresan lan egiten dute. Oñatiko gizona X-ekoa da. Auzoko jaietako txosnan zaude poteatzen eta enpresa horietako kamiseta daramete. Bere aisialdian!". (B2)

Dinamika horien ondorioz bi errealitate sortu ahal dira:

- 1) Maskulinitate hegemonikoarekin lerrokatzen diren gizonen espazio naturalizatua topatzen dute euren presentzia zilegi eta neutrotzat jotzen da.
- 2) Gorputz ez-normatiboak edo genero-adierazpen disidenteak dituzten pertsonen tentsio sotilagoa bizi dezakete. Hau da, arreta gehiago, serio ez hartzea, txantxa inuzenteak, edo euren adierazpena mugatzeko joera.

Hori dela eta, industria ez da soilik espazio produktiboa, bazik eta maskulinitatearen sozializazio kolektiboaren eszenatoki bat ere bada. Azken batean, irla maskulinoaren metaforak bi ideia batzen ditu. Batetik, espazioa maskulinitate zentral baten inguruan antolatua dagoela, eta, bestetik, hortik kanpo dauden gorputzek nabigazio konplexuagoa dutela, beti ez bada ere, askotan bai.

5.1.5.3.

HARROTASUN INDUSTRIALA

Parte hartu duten zenbait herritarrek azaldu dute fabriketan lan egiteak, askotan, ez duela soilik soldataren egonkortasuna ematen, herriaren balioekin bat datorren bizitza-modu baten parte sentitzea ere ekartzen duela. Hori dela eta, industriaren inguruan sortzen

⁷Horren adibide da urteko mendi martxan ohikoa da enpresa handietako merchandisina ikustea. Alegia, logotipo berdineko kamisetak, taldean ateratako argazkiak eta familia-formatu tradizionalen oinarritutako parte-hartzea. Ekitaldi horiek, komunitatearen batasuna adierazteko sortuak, batzuetan iradokitzen dute nola erreproduzitzen diren herriaren irudi nagusiak: aita korrika, ama txaloka, haurrak alboan, eta "ondo antolatutako familia" erdigunean.

den harrotasuna sarritan bihurtzen da identitate sozialaren osagai. Oñatin lan egitea, ondo funtzionatzea edo arduratsua izatea balio positibo eta partekatu gisa irudikatzen dira.

Logika horrek badu alde estetiko eta moral bat ere. Elkarrizketetan aipatu izan denez, lane-rako jarrera zuzena, gorputzaren kontrola, neurrizkotasuna edo dizi-plina bezalako balioak eredu desiragarritzat jotzen dira. Horrek ez du esan nahi arau finko bat dagoenik, baina bai ageri dela (modu sotil eta ez beti kontzientean) zein gorputz eta zein bizimodu ikusten diren naturalago herriko iruditerian.

Horrek ez du zertan bazterkeria zuzena sortu, baina bai askotan normaltasunaren markoa antolatzen laguntzen du. Hortik kanpo dauden gorputzek edo identitateek batzuetan zaila-goia dute beren erreferentzia propioa topatzea, iruditeria kolektiboak ez duelako beti beren lekua aurreikusten.

Irakurketa hau ez da orokortze bat, baina bai diagnostikoan behin eta berriz agertu den inpresio bat. Helburua ez da harrotasun industrialak kritikatu edo desegitea, baizik eta ulertzea nola eragiten duen bizigarritasunaren mapan. Industria Oñatiren nortasunaren parte da, eta askorentzat duintasuna, egonkortasuna eta komunitatea da. Baina, aldi berean, komeni da kontuan hartzea balio kolektiboek nolako ondorio sotilak izan ditzaketen identitate anitzen lekua aurkitzeko orduan⁷.

5.1.6. KIROLARIA

Oñatin, ohitura eta tradizioekin batera, kirolzaletasuna eta kirol federatuetako jarduna dira komunitatea egituratzen duten ardatz nagusietako bi. Kirolak betidanik izan du garrantzi sozial handia Euskal Herriko herri askotan, eta literaturak ere azpimarratu izan du kirolaren eginkizuna generoaren sozializazioan. Maskulinitate hegemonikoa birsortzeko espazio pribilegiatua da askotan (Connell, 1995; Messner, 2002), baina aldi berean, erresistentziarako eta ahaldunderako eszenatoki ere izan daiteke (Theberge, 2000; Scraton & Flintoff, 2002).

Diagnostikoan parte hartu duten Oñatiko herritar gehienek antzeko dinamika bat deskribatu dute. Batetik, kirolak balio positibo argia du (ongizatea, askatasun sentrazioa, laguntasuna, autoezagutza) eta pertsona askorentzat espazio askatzaile eta seguru izan da. Baina, bestetik, kirol elkarteak (bereziki federatuak) antolatzen diren moduak, estetika- eta portaera-arauak eta gorputz normatiboen presioak oztopo izan daitezke LGTBIQ+ pertsonentzat, batez ere gorputz ez-normatiboentzat, lesbianentzat eta gizon homosexual afe-minatuentzat. Horregatik, ezin da kirola modu monolitikoan ulertu. Kirola, praktika fisikoa eta aisialdia den heinean, askapenerako gune izan daiteke, baina kirol elkarteak, berriz, askotan heteronormatibitatea eta maskulinitate hegemonikoa birsortzen dituzten instituzio gisa funtzionatzen dute.

Oñatin, mendia eta futbola dira ardatz hegemonikoak, eta kirolaren presentzia publikoak (Esaterako, martxak, lasterketak, txapelketak) herri identitatea bera antolatzen du. Hala ere, parte-hartzaile askok nabarmendu dute kirolaren ikuspegi zabalago bat behar dela. Hau da, gorputz anitzak, adierazpen ez-normatiboak eta bizitza-modu disidenteak ere lekua izan dezaten Oñatiko espazio fisiko eta sinbolikoetan.

5.1.6.1.

ITOGARRIA ETA DIZIPLINATZAILEA

Kirolak eta, bereziki, kirol federatuaren egiturak, askotan hartu izan du generoaren diziplinarako funtzio bat. Messnerrek (1992) eta Prongerrek (1999) azaldu zuten kirol modernoa heterosexualitatea eta maskulinitate hegemonikoa naturalizatzeko mekanismo sozial gisa eratu dela. Lehiakortasuna, ausardia, erresistentzia fisikoa eta kontrol emozionala saritzen direla, eta, ondorioz, gorputz eta adierazpen ez-normatiboak bigarren mailan kokatzen direla.

Hau bereziki nabarmena egin zaie gizon homosexual, luma duten gizon edo marika eta gizon bisexual batzuei. Futbol taldeen edo mendi-inguruko kirolean ez dute beti topatu espazio erosoak, maskulinitatearen kode hegemonikoek sarritan ez dutelako gorputz-adierazpen anitza onartzen. Parte-hartzaile batzuek adierazi dute kirol federatuaren egitura batzuek oraindik ez dutela guztiz onartzen maskulinitate ez-normatiboaren aukera zabalagoa.

“Kirola corpusaren prozesio berri dela esango nuke.” (MK2)

Hori bai, gizon homosexualen kasuan ere badira zirrikituak. Kirol federatuaren espazio hegemonikoetan beti ez badira eroso sentitu, batzuek azaldu dute beste jarduera batzuetan aurkitu dutela tokia. Horien artean topa ditzakegu beste diziplina batzuk, esaterako, dantza, gimnastika, igeriketa, erritmo-jarduerak edo talde mistoko kirolean. Hau da, maskulinitatearen arau klasikoetatik kanpo dauden kirolean berrasmatu eta bizigarriagoak diren espazioak topatu dituzte.

Laburbilduz, kirol federatuaren egitura batzuek diziplinatzaileak izan daitezke, ez derrigorez asmo txarrez, baina bai genero eta gorputz-arau jakinak naturalizatzen dituztelako. Horrek mugatu dezake gorputz eta adierazpen anitzen parte-hartzea, eta espazio horiek seguru edo eskuragarri ez sentitzea ekarri.

5.1.6.2.

ASKAGUNEA BAINA EZ FEMINISTA

Beste alde batetik, parte-hartzaile batzuk nabarmendu dute kirolak (kirol federatuaz harago) askapen-funtzio garrantzitsua izan duela, bereziki lesbianentzat eta emakume bisexualentzat. Kirolak aukera eman die emakumetasun normatibotik aldentzeko eta gorputza modu

propioan bizitzeko. Sarri deskribatu dute kirolak gizonik gabeko espazio bat ireki diela, non desira lesbikoa, indarra eta autonomia erosoago adierazi ahal izan dituzten.

Hala ere, Theberge-k (1995) ohartarazi zuen bezala, emakumeen kirolak ere errepika ditzake gorputzaren diziplina eta feminitatearen arau sozialak. Diagnostikoan parte hartu duten hainbat emakumek tentsio hori islatu dute. Kirola askatzailea da, baina kirol federatuaren kategoriek oraindik saritzen dute argaltasuna, irudi zaindua eta emakume cis egokia denaren estetika. Horrek bereziki eragiten die gorputz lodiak edo adierazpen ez-normatiboak dituzten emakumeei:

“Kirolarekin lotutako espazioak, espazio ez seguru gisa ikusten ditut.” (ET1)

“Lodia izateak badirudi ez dizula eskubiderik ematen korrika egiteko, izerditzeko edo indartsu sentitzeko. Ez zara benetako kirolaria.” (B4)

Testigantza horiek bat datoz loditasun-aktibismo feministaren planteamenduekin. Gorputz lodia ez da kiroltasunaren kontrakoa, eta gorputz-aniztasuna ez litzateke salbuespen modura tratatu behar. Azken batean, kirola askapen-gune izan daiteke, baina askapen hori baldintzatu egiten dute oraindik gorputz- eta genero-arauek. LGTBIQ+ komunitatearentzat kirolaren esperientzia ez da homogeneoa, potentzial askatzaile handia du, baina era berean diziplina sozialaren arrastoak ere jasaten dira.

5.1.6.3.

ESPANSIBOA ETA MAKROA

Kirolak ez du soilik aisialdiko funtzioa betetzen, herriko espazio publikoaren egitura eta erritmo sozialak antolatzen dituen elementuetako bat ere da. Aurreko ataletan ikusi dugun bezala, kirol ekitaldiek (mendi lasterketek, martxek edo txapelketek) kaleak, plazak eta parkeak hartzen dituzte, eta komunitateari lotutako erritual kolektibo bihurtzen dira. Ekitaldi horiek, askorentzat, parte-hartzea eta harrotasuna indartzeko uneak dira.

Hala ere, diagnostikoan parte hartu duten zenbait pertsonak adierazi dute erritual horiek ez direla beti neutralki antolatzen diren espazioak. Askotan, heteroarauari eta maskulinitate hegemonikoari lotutako iruditegiak berreraikitzen dituzte, modu esplizituan ez bada ere. Horrek eragina izan dezake zein gorputz eta zein identitate ikusten diren natural edo bertako gisa, eta zein geratzen diren ertzean.

“Herria heterosexualitatearen parke tematiko bat bihurtzen da. Dena dira familia normalak. Aita korrikan eta ama eta semea txaloka, edo emakume estupenda bat korrika, beti argal eta pozik.” (BS1)

Ondorioz, kirol-ekitaldi horietako parte-hartzea ez da beti hautu pertsonal arin bat, batzuentzat pertenezia sozialaren adierazle ere bada. Espazio horiek oso presentzia handia

dutenez, bertan parte ez hartzeak edo deseroso sentitzea lotu izan da atxikimendu sozial ahulagoarekin, eta hori bereziki nabarmendu dute zenbaitek. Horrek ez du esan nahi kirolak komunitatea zatitzen duenik berez, baina bai forma horretan antolatutako jarduerak batzuetan diziplinatzaile bihur daitezkeela.

Bestalde, kontrapisu interesgarria eskaintzen dute eskola kiroleko formatuek. Nahiz eta egitura heteronormatibo baten baitan sortuak izan, praktikan aukera eman ahal dute genero-kategoriak malgutzeko. Parte-hartzaile batek adierazi duen bezala, espazio horiek errazago bihur daitezke haur eta nerabeentzat beren gorputza eta mugimendua genero-presio gutxiagorekin esperimentatzeko lekua.

Hortaz, Oñatin kirolak duen presentzia espantsiboak baditu bi aurpegi. Batetik, komunitatea kohesionatzeko potentzial handia, baina, bestetik, sexu-genero sistemaren zenbait arau sinbolikoren erreproduktzio sotila. Erronka ez da kirola problematizatzea, baizik eta espazio horiek benetan irekiak eta anitzak bihurtzeko aukerak identifikatzea.

5.1.7.

AKTIBOA

Oñatiko herriaren ezaugarri bat da bere aktibotasun politikoa da. Auzolana, asanbladak, gaztetxea, jai-batzordeak, kooperatibak eta herri-mugimenduen arteko elkarlana ez dira jarduera isolatuak, baizik eta azpiegitura sozial sendo baten adierazpena. Egitura horrek komunitatearen gaitasuna handitzen du arazoak kolektiboki identifikatzeko eta horiei erantzuteko.

Ikerketa sozial garaikide askok erakutsi dute (Della Porta, 2013; Polletta, 2006) parte-hartze maila handia duten komunitateak irekiagoak izaten direla aniztasunarekiko. Ez irekitasun naturala dutelako, baizik eta haien kultura politikoak aukera ematen duelako gatazkak hitzez, deliberazioz eta antolakuntzaz kudeatzeko. Horrek errazten du talde minorizatuen aldarrikapenak espazio publikoan lekua aurkitzea eta pixkanaka normalizatzea.

"Herri mugimendua bizirik dagoen herria da eta oro har baimentzen dira disidentzia batzuk" (MK1)

"Gaztetxea espazio seguru izan da orain arte." (ET1)

Hala ere, dinamika horrek badu bere alde konplexua. Edozein kultura politiko pluralak, Oñatiko barne, ez du automatikoki bermatzen aldarrikapen guztien pareko aitortza. Elkarriketetan etengabe agertu den ideia bat da LGTBIQ+ borroka bigarren mailako borroka bezala ulertu izan dela askotan eta beste borroka batzuk lehenetsi direla. Horrek partehartzaile batzuentzako mugatu ahal izan du LGTBIQ+ aldarrikapenen zilegitasuna eta indarra, eta zaildu egin du diskurtso propioa artikulatzea, espazio publikoa irabaztea, antolaketa

egonkorrak sortzea eta ahalduzko komunitarioa garatzea.

Hala ere, herri aktibo baten potentziala ez da gutxietsi behar. Kultura politiko horrek hiru zutabe elikatzen ditu, eta horietako bakoitza funtsezkoa izan daiteke Oñatin aniztasun afektibo-sexualaren eta genero aniztasunaren bizigarritasunerantz:

1. Segurtasuna eta duintasuna egunerokoan: Herri antolatu batean, eraso LGTBIQ+fo-boen aurrean erantzun azkarra eta protokoloak sortzeko aukera handiagoa dago. Elkar-tasuna praktikatzeko moduak ere errazago hedatzen dira.
2. Espazio publiko eta jai-giroaren eraldaketa: Txosnak, kalea, kiroldegia edo kultur pro-gramazioak erreferentzia garrantzitsuak dira herriaren iruditeria moldatzeko. Herri akti-bo batek aukera handiagoa du espazio horiek transfeminismotik eraldatzeko.
3. Eragin instituzionala: Tokiko erakundeekiko harreman dinamikoak balio inklusiboak hezkuntza, gazteria, kirola edo ekonomia arloetan txertatzeko aukera zabaltzen du.

5.1.71.

MUGIMENDU FEMINISTAREN ETA BOLLEREN PRESENTZIA HISTORIKOA

Diagnostikoan parte hartu duten LGTBIQ+ herritar gehienek espazio seguruak aipatzen dituztenean, lehen erreferentzia ia beti mugimendu feminista da, eta bereziki, bertan ur-teetan zehar aktibo izan den komunitate lesbikoa. Espazio horien artean topa ditzakegu, asanbladak, gaztetxeko dinamika, ekimen transfeministak. Hauek ez dira soilik topaleku informalak izan; askorentzat, identitatea askatzeko eta norbere burua modu seguruagoan adierazteko lehen eremuak izan dira.

“Nire sare askatzailea beti izan dira bollerak eta feministak, beraiekin beti ondo.”(MK1)

Ikerketa garaikideek azpimarratu dutenez (Taylor & Whittier, 1992; Coll-Planas, 2010), mu-gimendu feminista izan da sarritan LGTBIQ+ kolektiboentzako bigarren etxea, hiru arrazoi-rengatik:

1. Sistema hetero-patriarkala errotik kritikatzeko gaitasuna duelako
2. Sare afektibo eta politiko sendoak sortzeko ohitura duelako
3. Ikusgarritasunaren eta autonomia politikoaren aldeko apustuak egiten duelako.

Oñatin ere mekanismo bera gertatu da. Hau da, mugimendu feministak ikusgarritasuna, le-gitimitatea eta babes politikoa eskaini dizkio kolektiboari garai luze batean bestelakorik ez zegoenean eta izan dira lesbianak eta bollerak bereziki lan hori egin dutenak. Funtsekoak izan dira:

- LGTBIQ+ borroka herriko agendan txertatzen (ikusgarritasun ekintzak, protokoloak,

jai-gune propioak...).

- Eremu askatzaile berriak sortzen: seguruak, ez-heteronormatiboak eta gorputz-aniztasuna onartzen dutenak.
- Diskurtso politiko koherente eta ausarta eraikitzen: heteroarauaren aurkako kritika eta desira lesbikoaren legitimazioa uztartuz.
- Beste subjektu disidenteentzat erreferente bilakatzen (marikak, bisexualak, trans pertsonak).

Parte-hartzaile batzuek azaldu dute gizon homosexualek eta beste subjektu batzuek —berezi marikak— ez dutela beti modu errazean aurkitu lekua espazio feministetan. Arrazoiak askotarikoak izan daitezke, horien artean, mugimendu feministak historikoki emakumeen subjektu politikoa lehenetsi izan duelako, eta bollerengandik etorritako lidergo sendoak, batzuetan, ez du erraztu beste identitate batzuen kokapena edo ez da beti egon maskulinitate disidenteen erreferente nahikorik.

Testigantza horiek guztiak kontuan hartuta, ulertu liteke zenbait gizon homosexualek edo marikak “umezurtz politiko” moduko sentsazioa izan dutela noizbait; alegia, argi ez izatea zein espaziotan kokatu, nora jo edo nor bere erreferentetzat hartu. Hala ere, hau ez da errealitate finko edo orokorra, baizik eta elkarrizketetan agertu diren bizipen anitzen irudi zatitu eta aldakorra; eta, horregatik bertatik, etorkizuneko aliantza eta antolaketa moduak berrarmatzeko aukerak ere sortzen dira.

5.1.7.2.

LGTBIQ+ MUGIMENDUAREN ARTIKULAZIO ETA MEMORIA FALTA

Diagnostikoan nabarmendu den

beste elementuetako bat da Oñatin momentu honetan LGTBIQ+ mugimendu artikulatu eta egonkor bat ez dagoela. Ez da egoera berezi edo isolatu bat; ikerketa askok erakutsi dute (Ghaziani, 2011; Puar, 2007; Platero, 2012) LGTBIQ+ kolektiboak historikoki zailtasun estrukturalak izan dituztela antolatzeke, bai hiri handietan, bai herri txikietan. Oñatin gertatzen dena, beraz, dinamika zabalago baten isla da.

“Urteak daramagu elkar ezagutzen garela baina ez gara bildu.” (MK2 eta B3)

Gainera, elkarrizketetan jasotako hainbat ekarpenek iradokitzen dute egoera honek ondorio batzuk izan ditzakeela. Parte-hartzaile askok azpimarratu dute generazioen arteko elkarrizketa falta somatzen dutela eta horrek bi inpaktu sor ditzake. Batetik, artikulazio politiko ahulagoa, esperientzien, diskurtsoen eta borroka-moduen transmisioa etenagoa izan daitekeelako. Bestetik, memoria kolektiboaren lausotzea. Azken hamarkadetan feminismoak eta subjektu lesbikoek egindako lanak ez dira beti belaunaldi berrietara modu osokoan iritsi, eta horrek hutsune sinboliko eta politikoak utz ditzake. Horregatik, ezinbestekoa da memoria ariketa kolektibo bat egitea.

5.1.7.3.

HARREMAN INSTITUZIONALAK

LGTBIQ+ komunitateen bizigarritasuna ez da soilik sare sozialen edo mugimendu politikoaren indarraren araberakoa; instituzio publikoek eta herri-eragileek duten jarrerak ere eragin zuzena dauka. Aliantza instituzional sendoek, berdintasun politikak egonkortu, eskubide sozialen bermea handitu eta komunitateen segurtasun subjektiboa indartu egiten dute. (Cooper & Dhatti, 2020; Paternotte & Kuhar, 2017). Hori bai, ez da nahikoa onarpena adieraztearekin, politika publikoak, baliabideak, prestakuntza eta koordinazio eraginkorra behar dira. Gainera, aliantza instituzional bat finkatzeko, hainbat osagai dira funtsezkoak. Adibidez, elkarren arteko konfiantza, koordinazio eraginkorra, errespetua eta leialtasun politikoa eta, bereziki, mugimenduaren autonomia bermatzea.

Diagnostiko honetan bi instituzio nagusirekin bildu gara: Udala eta Osasun Zentroa . Azken urteotan, Oñatiko udalak eta LGTBIQ+ kolektiboak elkarrekin izandako harremanak pixkanaka sendotu direla antzeman dute parte-hartzaile askok. Ez da prozesu lineala izan, baina bai elkarriketa zuzenak, publikoak eta zintzoak erraztu dituen aldaketa bat. Konfiantza politiko apur bat sortu denean, ekimenak garatzeko bidea ireki izan da, eta udalaren parte-hartzea ez da soilik "babes instituzional" gisa bizi izan; askotan, konplizitate moduan agertu da, mugimenduaren kezkak entzun eta baliabide publikoak helburu partekatuetara zuzentzeko prestutasunean .

Hala ere, parte-hartzaileek berretsi dute harreman hori ez dela automatikoki sortu. Pertsonen arteko konfiantza, errespetua eta erritmo politikoak ulertzeko gaitasuna izan dira elkarlanaren oinarriak. Orain, erronka ez da soilik harreman hori mantentzea, baizik eta egituratzea, etorkizuneko pausoek oinarri sendoak izan ditzaten.

Osasun arloan ere bada potentzial handiko aliantza bat. Diagnostikoan parte hartu duten profesionalak argi utzi dute prest daudela elkarren artean biltzeko, koordinatzeko eta LGTBIQ+ kolektiboaren beharrei modu arduratsuan erantzuteko. Hori bai, borondate horrek baditu mugak ere. Osasuna alorrean prestakuntza espezifiko falta handi bat dagoela diote, baliabide pedagogiko eta protokolo eguneratuetara heltzeko zailtasunak dituztela eta zenbait profesional ez izatea Oñatikoak, tokiko testingurura egokitze denbora behar izanik. Horregatik, beharrezkoa dela iradoki dute lankidetzak eta formakuntza-lerro egonkorak sortzea, arreta sanitarioa ez dadin pertsonen jarrera onaren edo borondate indibidualaren menpe egon.

Diagnostikoan bildutako esperientziek erakusten dute aliantza instituzionalak badaudela, eta aurrekari sendoak sortu direla. Baina oraindik ere bada bide zabala egiteko, batez ere LGTBIQ+ kolektiboaren bizigarritasunari eragiten dioten beste esparruetan.

5.1.8.

EUSKALTZALEA

Euskara ez da soilik hitz egiteko modu bat, herria antolatzen duen hari emozional eta sozial-etako bat da. Kalean, plazan, jaietan edo elkarriketa politikoetan, hizkuntza da harremanak ehuntzen dituen oinarrietako bat, eta horrek eragin zuzena dauka LGTBIQ+ komunitatearen bizi-esperientzietan ere.

Diagnostikoan parte hartu duten pertsonak sarri adierazi dute euskarak segurtasun espazio bat sortzen diela. Hizkuntza partekatzeak askotan errazten duela konfiantza, eta identitatea adieraztea ere erosoagoa bihurtzen da:

“Gu ere gara herria euskeraz egiten dugulako... horregatik sentitzen gara bertako”. (MK2)

Horrek ez du esan nahi euskarak berez babes automatikoa sortzen duenik, baina bai askotan hizkuntza bera bihurtzen dela herri-harremanak artikulatzeko ate nagusietako bat. Testuinguru euskaldunduetan —eta Oñatin bereziki— euskarak sozializazioaren logika markatzen du. Hizkuntzak komunitatearekin konektatzeko modua baldintzatzen du, eta, zenbait kasutan, segurtasun afektiboaren kanala ere bada.

Euskararen aldeko borrokak eta sexu-genero disidentzien borrokak sarritan elkarren paraleloan ulertu izan dira, egitura zapaltzaile antzekoen aurrean kokatzen direlako. Idurre Eskisabelek (2008) azpimarratu du hizkuntza minorizatu baten aldeko aldarria ez dela soilik komunikazio-auzia, baizik eta subjektibitatearen eta botere-harremanen antolamenduarekin zuzenean lotutako gatazka politikoa. Antzera, Kattalin Minerrek (2018) adierazi du sexualitate disidenteeek ere normalizazioaren presioaren aurrean erantzuten dutela, eta, neurri batean, hizkuntza gutxituek bezala, bestelako existentzia-moduak aldarrikatzeko gune bihurtzen direla. Bi autoreek erakusten dute zapalkuntza bi hauek —hizkuntzarena eta sexualitatearena— ez direla bata bestearen isla, baina bai hegemonia kulturalaren aurrean kokatzen diren erresistentzia-moduak; eta askotan, elkar elikatu egiten dituzte, identitate kolektiboaren mugak birpentsatzeko aukera irekitzen dutelako.

Aldi berean, hizkuntza disidentea izateak —izan euskararena, izan sexualitateari dagokiona— antzekotasun sakon bat du: biak dira identitatea eraikitze modu alternatiboak, eta biak dira komunitatea nola antolatzen den berriz pentsatzeko deialdi politikoak. Horregatik, Oñatin euskararen eta LGTBIQ+ borroken arteko gurutzadurak potentzial berezia du. Komunitatearen ertzak zabaltzeko, herriaren iruditeria kolektiboa berritzeko eta bestelako bizitzak erdigunean kokatzeko tresna izan daiteke.

Halere, kontuan hartu behar da diagnostikoan parte hartu duten pertsona gehienak euskaldunak izan direla. Horrek testuan islatu daitekeen begirada jakin bat sortzen du. Hau da, LGTBIQ+ mugimendua maiz euskaldun gisa agertzen da, baina ez dakigu nola bizi duten

errealitatea euskaraz ez dakiten herritarrek, jatorri migratua dutenek edo euskararekiko harreman deseroso edo urrunagoa dutenek. Galdera irekia da, beraz, nola egin euskarazko LGBTBIQ+ espazioak ere erakargarri eta eskuragarri, norbanakoen hizkuntza-gaitasuna edo jatorria edozein izanda ere. Etorkizuneko erronka da, eta ezinbestekoa da komunitatea zabaldu nahi bada.

5.2. Zigorrak eta mugak

LGTBIQ+ pertsonen sexualitatea, erotika, harremanak, identitatea eta, oro har, bizitza askatasunez bizitzeko eskubidea ez da erabaki indibidual hutsa. Ingurune sozialak baldintzatzen du norbera nola adierazi daitekeen, eta gainerako pertsonen jarrerak eta egiturazko arauak ahalbidetzen edo mugatzen dute hori. Judith Butlerrek (2004) azaldu bezala, subjektuak ez dira askatasunaren espazio huts batean erabakitzen, bizigarritasunaren markoak beti dira sozialki ekoitziak. Horregatik, LGBTBIQ+ identitatea askotan ausardiaren edo segurtasun pertsonalaren sinonimotzat hartzea logika injustua bihur daiteke. Norbanakoa heroizatzeko arriskua dago, eta, aldi berean, erruduntasuna eragin diezaieke ikusgarritasun osoa ezin edo nahi ez duten pertsoneri.

Horregatik, Sara Ahmedek (2017) ere ohartarazi du ikusgarritasuna ez dela beti aukera segurua, ezta beti desiragarria ere. Subjektu batzuek ikusgarritasunak arriskuan jartzen ditu eta horregatik ikusgaitasuna bera izan daiteke eurentzat bizirauteko estrategia bat. Hortaz, helburua ez da LGBTBIQ+ pertsona guztiek maila bereko ikusgarritasuna izatea, baizik eta guztiek izan ditzatela beren bizitzak duintasunez eta askatasunez antolatzeke baldintzak.

Azken urteotan, Mendebaldeko gizarteetan eskuin muturraren gorakadak eragin nabarmena izan du sexu eta genero-aniztasunaren aurkako politiketan. Eskubideen atzeraldiak, gorroto-diskurtsoen normalizazioa eta familia tradizionalaren fetitxizazio berrituak ez dira joera isolatuak. Jasbir Puarren (2018) arabera, estatuen heteronormaltasuna berritzeko eta kontrol soziala indartzeko estrategiak dira. Joera horien dimentsioa ulertzeko, bi adibide gertuko ikuspegi batera ekartzea lagungarria da. Nazioartean, Italian eta Estatu Batuetan onartu diren lege atzerakoiek —familia homosexualen aitortza murriztuz, pertsona transen eskubideak mehatxatuz edo hezkuntzan ideologia queerria debekatuz— erakusten dute nola instituzioek berrets dezaketen gorrotoaren diskurtsoa eta normalizatu dezaketen diskriminazioa.

Euskal Herrian ere, azken urteotan hainbat herritan gertatu diren eraso homofobo eta transfoboek agerian utzi dute tolerantzia irudiaren azpian beste errealitate bat dagoela. Mugimendu feministak eta transmaribibolloak behin eta berriz salatu dutenez, “dena onartuta dago” diskurtsoaren atzean eguneroko mikroerasoak, isiltasunak eta espazio publikoaren erabilera mugatua ezkututzen dira.

Testuinguru honetan, Oñati ez da errealitatetik kanpo geratzen. Herri euskaldun eta politizatu batek eskaintzen dituen babes eta komunitate egiturak indartsuak izan arren, azken urteetan antzeman dira irain sotilak, bazterkeria egoerak, komentario desegokiak jai-inguruan, harreman lesbikoak txantxa gisa hartzea, mariken edo pertsona transen inguruko zurrumurruak eta zenbait kasutan erasoak ere, giro sozialaren tentsioak eta mugak azaleratuz. Horregatik, ezinbestekoa da neurri politiko eta komunitario sendoak ezartzea, bai erasoen prebentziorako, bai LGTBIQ+ herritarren segurtasuna eta duintasuna bermatzeko.

Atal honetan aztertuko diren muga eta zigor sozialak ez dira fenomeno isolatuak. Aurreko kapituluetan Oñatiko egitura sozial eta kulturalen azterketan behin eta berriz agertu dira. Identifikatutako sei dinamika nagusiak hauek dira:

1. Zurrumurruak
2. Seinalamentuak eta markapenak
3. Autozentsura eta armarizazioa
4. Normalizazioa
5. Argaltasunaren presioa
6. Sexilioa

Argi gera dadila, mugak ez direla, ordea, etsipenaren seinale. LGTBIQ+ komunitateak erresistentzia kolektiboaren eta aliantza berrien bidez egiten die aurre, egoera zailtan ere bizitza duinak, politikoak eta askatzaileak eraikiz.

5.2.1.

ZURRUMURRUAK

Zurrumurruak ez dira informazio zehaztugabea besterik; komunitate batek bere burua antolatzeke erabiltzen duen kontrol sozial sotala dira. Gary Alan Finek (2007) azaldu bezala, zurrumurruak talde baten moral kolektiboa aktibatzen dute, zeinak markatzen duen zein portaera den onargarria eta zein irteten den arautik. Herri txikietan, gainera, mekanismo horiek are eraginkorrago bihurtzen dira. Informazioa azkar hedatzen da eta ondorio sinbolikoak norberaren bizitzaren eremu intimoenetaraino irits daitezke.

Oñatin ere antzeko logika bat ageri da. Herriaren tamaina txikia denez eta elkar ezagutza handia denez, zurrumurruak epai kolektibo isil moduan funtzionatzen ari dira. Airean flotatzen duten baieztapenak dira, inor zuzenean seinalatu gabe baina jarrera batzuk zigortu edo bestelako batzuk saritzen dituztenak. Askok adierazi dute “zer esango duten” galderak baldintzatzen duela erabaki asko: nola jantzi, norekin agertu plazan edo zenbat partekatu harreman afektiboez. LGTBIQ+ pertsonen kasuan, zurrumurruak maiz sexualitatearen inguruko espekulazioetatik abiatu ohi dira. Ohikoak izaten dira horrelako baieztapenak entzutea: “esan dute mutil batekin ikusi dutela”, “emakume hori ez da inoiz gizon batekin ibili” edo “asko ibiltzen da lagun jakin batzuekin”. Horrelako esamesek ez diote soilik bizitza pribatuari

erreferentzia egiten, normalizazioaren logika isil baina eraginkorra indartzen dute.

5.2.2.

SEINALAMENTUAK ETA MARKAPENAK

Oñatiko egunerokoan, parte-hartzaile batzuek adierazi dute LGBTQ+ pertsonen aurkako kontrol soziala ez dela beti irain zuzenen bidez agertzen; sarriago, seinalamendu edo markapen moduan bizi dutela. Hauetan sartzen dituzte begirada luzatuak, tabernan norbaitek beste alde batera begiratzea, edo txantxa gisa aurkezten diren komentario zeharkakoak. Ez da beti argi uzten zein puntutaraino diren nahitako ekintzak edo oharkabeko inertziak, baina parte-hartzaile batzuentzat keinu horiek espazio jakin batzuetan nola egon behar den markatzen dutela sentiarazten dute.

Ikerketa honen ikuspegitik, seinalamendu horiek ez dira ulertu behar baieztapen kategorisa gisa; parte-hartzaileek euren gorputzek eta harremanek jasaten dituzten irakurketen testigantza modura baizik. Teoria sozial batzuk lagungarriak izan daitezke testuinguru hori ulertzeko. Adibidez, Erving Goffmanek (1963) azaldu zuen estigma ez dela ezaugarri bat berez, baizik eta gizarteak ezaugarri horri egiten dion errendizio morala. Diagnostikoan, zenbait lagunek deskribatu dute nola genero-adierazpen edo afektibitate jakin batzuk arraro edo beste zerbait gisa hautematen direla, eta horrek ondorio praktikoak dituela eguneroko portaeretan: nola jantzi, zein espaziotan egon eroso, nori eman eskutik eta noiz.

Bestalde, espazio publiko askok, nahiz eta modu esplizituan ez izan, heterosexualitatearen logika normalizatzen dute (Berlant eta Warner, 1998) eta parte-hartzaile batzuen esperientziek bat egiten dute irakurketa horrekin. Arautik ateratzen den edo hala iruditu daitekeen gorputz batek arreta gehiago jasotzen du, eta horrek seinalamendu-ziklo bat abiaraz dezake.

Zenbaitek azpimarratu dute ere mekanismo horiek ez direla abstraktuak edo kalte txikiak. Kontatu dute urte luzez ez dutela plazan eskutik heldu, edo kale jakin batzuetan ez direla eroso sentitzen, ez dutelako argi zer nolako erreakzio soziala jasoko duten

“Herriko bollerak izan gara beti. Ekintzak egiten genituenean bagenekien jendeak seinalatuko gintuela, baina egiten genuen berdin. Asko disfrutatu genuen, baina faktura ere pasa digu.”(B2)

Seinalamendu horiek, parte-hartzaile batzuen arabera, ondorio emozional eta sozialak utzi dizkiete, ikusgarritasuna murriztuz, autozentsura areagotuz eta harreman-sareak lausotuz. Ez da beti erraza bereiztea zer den presio sozial zuzena eta zer den barneratutako erreakzio automatikoa, baina biak gurutzatuta agertzen dira askotan.

Tabuaren ideiak ere hartu du lekua testigantzetan. Eve Sedgwick (1990) azaldu zuen

tabu sexualak ez direla soilik esan ezin diren gauzak, tabuaren boterea areagotu egiten dela hitzik ez egotean, hau da, esperientziak partekatzeko espaziorik ez dagoenean. Oñatin elkarriketan parte hartu duten zenbait lagun ados agertu dira ideia horrekin; askok bazekiten aurreko belaunaldietako lesbiana edo marika batzuk existitu zirela, baina ia inork ez duela horretaz inoiz hitz egin.

"Bageneraman denbora elkartu gabe. Egia esan, ez dakit honetaz inoiz hitz egin dugun. Diagnostikoa izan da gure lehen aldia." (MK1)

"Gure aurretik egondako bollerak bazekizkigun, baina inoiz ez dugu horretaz hitz egin."(B1)

Horri guztiori gehitu behar zaio interseksionalitatearen aldagaia. Generoa, adina, klasea, jatorria edo hizkuntza-praktikak gurutzatzen direnean —euskararen erabilera bera barne—, seinalamenduaren pisua desberdin esperimentatu daiteke. Azken batean, seinalamendu eta markapen praktika hauek ez dira beti modu berean eragiten, baina parte-hartzaile batzuek identifikatu dute espazio publikoaren mapa zehatz bat marraztu dezaketela:

"Aurrez aurre ez dizu inork ezer esaten, baina bizkarrera hitz egiten dela nabaritzen da."(ET1)

Testigantza horiek, beraz, ez dira errealitate absolutu baten adierazle, baina bai herritarren parte batek bizi dituen sentrazio eta mekanismo batzuk ulertzen laguntzen duten pistak. Horiek identifikatzeak aukera ematen du komunitatearen kohesioa sendotzeko eta espazioak are seguruago eta irekiago bihurtzeko.

5.2.3.

AUTOZENTSURA ETA ARMARIZAZIOA

Autozentsura askotan ulertzen da norbanakoaren barne-erabaki gisa, baina sozialki ekoizitako mekanismo bat da (Sapiro, 2016; McNay, 2019). LGTBIQ+ pertsonen kasuan, autozentsura sarri harreman publikoetan, afektibitatearen adierazpenean edo estetikan gauzatzen da, ez ausardia faltagatik, baizik eta kostu sozial posibleak modu prebentiboan kudeatzeko estrategia bezala.

Parte-hartzaile askok adierazi dute ez dutela autozentsura intentsitate handiko kontrol gisa bizi, baizik eta eguneroko ohitura sotil moduan, alegia, janzkera egokitzea, komentario batzuk ez egitea, norbaiten aurrean distantzia mantentzea, edo bikotekideari eskutik ez heltzea espazio jakin batzuetan. Hori bai, horrelako praktikak ez dira beti kontzienteak, askotan, espazio batek eskaintzen duen segurtasun-maila azkar irakurtzeko modu barneratua bihurtzen dira.

Fenomeno horrek lotura du, neurri batean, zuzentasun politikoaren markoarekin. Michael

Billigek (1992) edo Wendy Brown-ek (2001) azaltzen duten bezala, zuzentasun politikoak komunitate baten barruan adostasun sozial bat ezartzen du irainak edo eraso zuzenak ez normalizatzeko, eta horrek babes-geruza bat sor dezake. Baina, aldi berean, autore horiek ohartarazten dute diskurtso formalak ez duela beti desagerrarazten eguneroko kontrolaren mekanismo sotila. Indarkeria ez da beti hitz altuetan agertzen, baizik eta begirada batzuetan, komentario iradokitzaileetan edo hurbiltasun-distantzietan.

Oñatiko parte-hartzaileen diskurtsoetan antzeman daiteke dinamika horren forma matizatu bat. Orokorrean ez dute eraso fisiko bortitzen presentzia nabarmendu, eta baliteke horrek lotura izatea herrian dagoen giro politiko progresistarekin eta zuzentasun politikoaren markoarekin. Baina, era berean, hainbat lagunek azaldu dute horrek ez duela bermatzen askatasun osoz jokatzeko aukera.

Autozentsura hori ez da bakarrik existitzen. Askotan, armarizazioarekin gurutzatzen da. Goian azaltzen den bezala, armarizazioa ez da soilik norbere orientazio sexuala edo genero-identitatea ezkutuan mantentzea, identitatearen zati batzuk espazio publikoan ez agertzea da, zaurgarritasuna kudeatzeko eta normalizazioaren presioari aurre egiteko estrategia da. Beraz, armarizazioa ez da ulergarria soilik debekuen bidez, askotan, bizirauteko logika bat da, harremanen intentsitatea, ikusgarritasuna edo diskurtsoa dosifikatzen dituen mekanismo bat.

Oñatin bildutako testigantza batzuetan, armarizazioa ez da dramaren edo beldurraren tonuarekin agertzen, baizik eta eguneroko praktika moduan. Nola? Zenbait espaziotan ez hitz egitea bikotekideaz, lanean ez aipatzea dituzun harreman afektibo-sexualak edo herriko gune batzuetan ez agertzea ohiko itxura edo estiloarekin.

Bizipen horiek ez dute adierazten Oñatin armarizazioa forma bortitzean gertatzen denik; baina bai iradokitzen dute tentsio sotil batzuek norbere adierazpenaren administrazio zehatza eskatzen dutela. Gainera, armarizazioa, kasu askotan, ez da espazio guztietan berdin agertzen.

Parte-hartzaile batzuek adierazi dute herriko espazio informaletan —lagunarteetan, gazte-txean, aisialdi eremu jakin batzuetan— ez dutela ia presiorik sentitzen, baina bestelakoe-tan, esaterako, industrian, autozentsuraren eta diskrezioaren logika indartuago bizi dutela.

Atal honetako esperientziek ez dute baieztapen absoluturik eskaintzen, baina bai dinamika sozialen pistak. Sexu-genero disidentziak askotan ez dira indarkeria esplizituaren bidez mugatzen, baizik eta eguneroko tonu txikien bidez, eta horrek norbanakoaren presentzia eta plazeraren antolaketa baldintzatu dezake. Hori guztia kontuan hartuta, autozentsura eta armarizazioa ez dira norbanakoaren “indarra” edo “ausardia” neurtzeko tresnak izan behar, baizik eta ingurune sozialaren kalitatea neurtzeko barometro bat.

5.2.4.

HOMONORMALIZAZIOA

Oñatin, aurretik azaldu bezala, estetika eta jarrera heteroarautuek presentzia handia dute herriko imajinario kolektiboan. Testuinguru horretan kokatzen da homonormalizazioaren dinamika, Lisa Dugganek (2003) deskribatutakoarekin bat eginez, LGTBIQ+ subjektu batzuk onargarritasunaren trukean integratzen dira, betiere heteroarauaren moldeetara hurbiltzen diren heinean. Ez da fenomeno berezia Oñatin; Mendebaldean orokortutako logika bat da, eta herriko bizipenetan modu sotil eta ez intentsiboan ageri da.

Parte-hartzaileen testigantzek iradokitzen dute badela gay ona eta lesbiana egokiaren irudi bat. Diskrezioa, bikote egonkor monogamoa, jarrera ez-prookatzailleak, eta estetikaren aldetik, ez gehiegizko femeninitasuna edo maskulinitatearen ezaugarriak duena da. Irudi horrek ez du soilik jokabide batzuk saritzen, beste batzuk ertzera eramaten ditu, disidentzia estetiko edo afektibo handiagoa dutenak, gorputz ez normatiboak dituztenak edo genero-adierazpen ikusgarriagoa dutenak.

“Gauza bat da lesbiana izatea eta bestea hanketan ileak izatea. Ez dago arazorik zure orientazioarekin, baina ederra izan behar zara. Oso astuna da.” (EH1)

“Urteak daramat mutil berdinarekin, eta uste dut horregatik ez ditudala arazoak izan. Betiko bikotea garelako.”(BS1)

Horrek ez du esan nahi pertsona horien jokabideak kritikagarriak direnik, askotan, normalizazioa ez da hautu kontziente bat, baizik eta ingurunera egokitzeko modu bat, nekerik gabeko bizitza posible egiteko:

“Jada egin dugu egin beharrekoa.” (B3)

Baina egokitzen honek badu beste ondorio bat. Herriko iruditerian beste subjektu batzuk —marika ikusgarriak, lesbiana lodiak, trans pertsonak edo genero-adierazpen normatibotik aldentzen diren gorputzak— bi aldiz zigortuak sentitzea. Lehenik araua ez betetzeagatik eta bigarrenik normaltasunaren kontrakoak izateagatik. Hortik sortzen da galdera nagusia: Zein prezio du onartua izateak, eta nor geratzen da onarpen horretatik kanpo?

5.2.5.

ARGALTASUNAREN PRESIOA

Edozein gizarte patriarkalean bezala, Oñatiren ere, gorputz zainduak, neurrizkoak edo ikusgarri atseginak saritzen dira, eta hortik ateratzen diren gorputzek —indartsuak, lodiak, maskulinizatuak edo konbentzioetatik kanpokoak— sarriago jasaten dute bazterketa sinbolikoa. Komentario inuzenteak, begirada azkarrak, ohar estetikoak edo arropen inguruko

epai sotilak. Horregatik, parte-hartzaile askoren arabera, lodifobia egunerokoan sentitzen dute, ez beti era esplizituan, baina bai etengabeko tonu sotil moduan.

Loditasuna ez da soilik gorputz-kontu gisa bizi, arau sozialetik kanpo kokatuta egotearen esperientzia bihur daiteke, norbere presentziak, desirak edo espazio publikoan egoteko moduarekiko zilegitasunak zalantzan jartzen direnean.

Hala ere, azken urteetan, gorputz disidenteen artean —eta bereziki emakume eta bollera batzuen artean— loditasun aktibismoak indar berria hartu du, eta Oñatin ere aktibismo hori identifikatu egin da. Loditasuna ez da gehiago lotsaren leku gisa ulertzen, baizik eta identitate politiko eta afektiboaren lurralde modura, gorputza berreskuratzeke, desira nork bere baldintzetan eraikitzeke eta emakumetasun normatiboak ezartzen duen irudi egokiaren presioari aurre egiteko espazio bat da. Beraz, Oñatin loditasuna, kategoria estetikoa baino gehiago, erresistentziaren eta autoafirmazioaren hizkuntza bihurtzen ari da,

“Jardunaldi lodiak niretzat la ostia izan ziren. Ordutik ulertzen dut bollera eta lodia kategoria elkarrekin doaztela, eta nire borroka hortik egitea erabaki dut. Emakume estupenda kategoria apurtzeko bollera lodiak gaude.” (B4)

5.2.6.

SEXILIOA

Sexilioa ez da urruneko edo salbuespenezko fenomeno, LGTBQ+ pertsonen mugimendu geografiko eta emozionala da, askotan ikasketak, lana edo aukera profesionalak bezalako arrazoien bidez azaldu arren, atzean beste behar bat dagoena: bizigarritasun afektibo eta sozialerako espazio bat topatzea.

Queer mobilitateren ikerketek (Cantú, 2009; Gorman-Murray, 2011) azaldu dute sexilioa ez dela soilik alde egitea, baizik eta arau heteronormatibo eta zisnormatiboez mintzatutako lurralde batetik kanpo arnasa hartzeko mugimendua. Ez da erabaki indibidual huts bat, baizik eta giro sozialen eraginez ekoiztutako estrategia da. Herri batek ez badu gorputz, adierazpen edo desio jakin batzuen presentzia sostengatzen, pertsonak beste nonbait sortzen du bere bizitza posiblea.

Oñatiren testuinguruan, parte-hartzaileen testigantzek iradokitzen dute sexilioa ez dela gertatzen errealitate bortitzen aurrean —eraso fisiko zuzenak ez dira nagusi—, baizik eta eguneroko tentsio sotilen pilaketaren ondorioz.

Egoera horiek guztiek bizigarritasunaren muina higatzen dutela kontatu dute zenbaitek, herrian geratzea ez da arriskutsua, baina bai nekagarria, mugagarria edo identitatearen zati batzuk estutu beharra dakarrena. Horregatik, askok alde egitea ez dute porrot pertsonal gisa bizi, baizik eta askapenerako mugimendu baten forman.

Sexilioak, hala ere, bi aurpegi ditu. Batetik, askatasun eta autoeraikuntza prozesua; bestetik, min sotila uzten duena. Parte-hartzaile batek horrela laburbildu zuen:

“Orain dela 20 urte joan nintzen Oñatitik X-era. Askatasuna behar nuen, ez nuen oñatiar emakume bat izan nahi. Orain bueltatu naiz eta badago jende maja eta desberdina, baina oraindik insoportablea da.” (B2)

Sexilioa, beraz, ez da ihesa, baizik eta bizigarritasunaren bilaketa. Eta sexilioak existitzen jarraitzen duen bitartean, herri batek ezin du esan bere aniztasuna erabat txertatua eta zaindua dagoenik.

5.2.6.1. AISIALDIA

Aisialdiaren eremua ez da beti LGTBQ+ komunitatearentzat bizigarri. Jaiak, kirol jarduerak eta familia nuklearraren inguruan diseinatutako ekintzak heteroarauaren arabera egituratzen dira, eta horrek deserosotasuna eta bazterketa sortzen du. Parte-hartzaile askok adierazi dute askotan “plazerik gabe” bizi dutela herriko aisialdia, espazio horiek ez direlako eurentzat pentsatuak. Ondorioz, beste leku batzuetara ihes egitea bihurtzen da askotan arnasa eta segurtasuna bilatzeko estrategia.

“Donostiara joaten ginen ligatzera. Uste dut ez dudala inoiz Oñatin ligatu. Hemen militatzen dugu, hau da, bollerismoa militantziazatik egin dugu eta ez plazeretik” (BS2)

“Transfeminismoaren garian juerga asko egiten genituen Oñatitik kanpo. Baten bat ere hementxe egin genuen, baina kanpoko jendea etortzen zen. Herriko taberna batean ligatzea edo tonteatzea? Ezin dut imajinatu. Leku seguruak behar ditugu” (B2)

Hutsune horrek ondorio emozional nabarmenak ditu, autoestimua eta pertenezia sentimendua ahultzen dira, eta komunitate-sareak sortzeko aukerak murrizten dira. Azkenean, herrian bertan biziz ere, askok kanpoan sozializatzea jotzen dute, sexilioaren dinamika modu sotilean berriztatuz.

5.2.6.2. BETIRAKO DESATXIKIMENDUA EDO HERRIRA BUELTA

Sexilioaren aurpegi mingarriena da betirako desatxikimendua. Herritik alde egitea eta ez itzultzea. Askotan, esperientzia mingarriek —estigmak, isolamendua, babes faltak edo irainak— herriaren memoria afektiboa hausten dute, eta horrek itzulera ezinezko bihurtzen du. Denborarekin, harreman pertsonalak urritzen dira, erreferente positiboak desagertzen dira eta “etxekotasunaren” sentsazioa lausotzen da.

Horren ordeaz, LGTBIQ+ pertsona batzuk beste ingurune handiagoetan aurkitzen dute segurtasuna eta aukera soziala, eta bertan berreraikitzen dituzte beren sare eta identitateak.

“Bueltatu naiz beste erremediorik ez dudalako, familiar bat zaindu behar dudalako; baina ni jada ez naiz oñatiarra. Edo bai. Ez dakit. Kanpoan egon naizen denbora guztia ez naiz sentitu oñatiarra” (Identifikatu gabe)

Ez-itzulerak ondorio kolektibo argiak ditu: aniztasunaren ikusgarritasuna urritu, erreferenteak gutxitu eta herriko berrikuntza soziala ahuldu egiten du, herria bizitza disidenteen gabeziaren isla bihurtuz.

Hori bai, sexilioa ez da beti haustura. Batzuentzat, joan-etorri ziklikoa da, arnasa hartzeko edo gune askatzaileagoak bilatzeko beharraren parte. Kanpoan topatutako segurtasunak eta sare afektiboek norbere identitatea sendotzen dute, eta askok, denborarekin, lotura berri bat sortzen dute Oñatirekin.

“Ez dut uste gustua hartuko diodanik, baina egia da gauza batzuk hobetu direla” (Identifikatu barik)

Itzultzen direnen arrazoiak askotarikoak dira: senideen zaintza, lan edo etxebizitza aukerak, edota herriarekiko harreman emozionala. Esperientzia horiek balio handiko zubiak dira, kanpoan ikasitakoa herrian txertatzeko aukera ematen baitute. Hala ere, itzulera ez da beti prozesu erraza. Sarritan, frustrazioa, desilusioa edo bigarren desatxikimendua ere gertatzen da. Horregatik, itzultzen direnekin batera eraikitako ibilbideak funtsezkoak dira, atxikimendua nostalgian ez, baizik eta praktika eraldatzaileetan oinarritzeko.

5.2.6.3.

TENTAZIOA

Oñatiko LGTBIQ+ komunitatean, sexilioak tentazio forma hartu du partehartzaile gehienetan. Ez da esperientzia orokorra, baina bai aukera etengabe presentea, batez ere 30-40 urteekin. Askok pentsatu dute inoiz alde egitea, arnasa hartzeko edo bizitza askeago bat eraikitzeko. Hala ere, gehienek herrian geratzea aukeratzen dute, Oñati bizigarri bihurtzeko borondateari eutsiz.

“Oraindik hemen nire bizi proiektua daukat. Saiatuko naiz. Azken saikera eta ezin bada, banao” (EH1)

Sexilioaren aukera horrek, beraz, bi aurpegi erakusten ditu. Alde batetik, askatasunaren promesa eta ihesaren irrika; bestetik, herriari eusteko nahia eta sustraien indarra. Oñatiko LGTBIQ+ pertsonen esperientzietan, sexilioa ez da soilik ihes fisikoaren ideia, baizik eta beste bizitza posible baten imajinazioa: herria bera eraldatzeko nahia islatzen duen tentsio

emozional eta politikoa.

Atal honetan azaldutako guztiarekin, argi geratzen da Oñatiko LGTBQ+ pertsonen egunerokoa ez dela irain edo eraso esplizituen bidez soilik baldintzatzen. Zurrumurruek, seinalamenduek, autozentsurak, homonormalizazioak, argaltasunaren presioak eta sexilioak osatzen dute, elkarrekin, kontrol sozial sotilez osatutako sare bat. Sare horrek ez du beti aurpegi dramatikorik hartzen, baina bai eragin iraunkorra: gorputzek nola okupatzen duten plaza, nola adierazten diren harremanak, zein espaziotan sentitzen diren eroso eta non ez.

Hala ere, muga horiek identifikatzeak ez du esan nahi errealitatea itxia edo aldaezina denik. Diagnostikoan zehar agertu da erresistentziarako gaitasun handia dagoela: sare afektibo eta politikoen, mugimendu feministak, gaztetxeak, euskaraz artikulatutako komunitateak, loditasun aktibismoak edo LGTBQ+ aliantza txiki baina eraginkorrek bestelako bizitzeko modu posibleak irekitzen dituzte.

Zurrumurruen aurrean elkarren babesa, seinalamenduen aurrean umorearen eta konplizitatearen bihurketa, autozentsuraren aurrean lagunarte seguruak edo sexilioaren aurrean itzulera kritikoak ere badaude. Ez da errealitate idealizatua, baina bai badirela jada martxan dauden praktika askatzaileak, gehienetan modu diskretuan baina eraginkorrean.

Hori dela eta, zigorrak eta mugak izeneko atal honek ez du helburu izan egoera ilun eta itxi baten irudia ematea, baizik eta zein guneetan ari diren pilatzen tentsioak eta zein puntutan beharko liratekeen aldaketa sakonagoak seinalatzea.

5.3. Estrategiak eta aliantzak

LGBTQ+ komunitatearen bizitzak ez dira ulertzen soilik mugen eta zigor sozialen bidez. Teoria queerretatik eta mugimendu feministatik aspaldi azpimarratu den bezala (Muñoz, 1999; Ahmed, 2017), erresistentzia ez da indarkeria baten ondorengo erreakzio hutsa, bestelako munduak eraikitze modu aktiboa da. Hau da, zapalkuntza-testuinguruetan ere, subjektuek estrategiak garatzen dituzte espazio propioak sortzeko, bizigarritasuna kolektiboki negoziatzeko eta desira modu askatzaile eta ez-normatiboetan antolatzeko.

Horregatik, Oñatiko LGBTQ+ komunitatearen praktika eta harremanek ez dute soilik pairatzearen logika islatzen; agentzia politiko eta afektiboa erakusten dute. Butlerrek (2015) proposatzen duen moduan, komunitateak zaintzen dituen harreman-hariak sortzen direnean, bizigarritasuna ez da soilik indibidualki lortzen, politikoa bihurtzen da.

Era berean, aliantza politikoen garrantzia ezinbestekoa da testuinguru txiki eta trinkoak dituzten herrietan. Autore askok azaldu dute aliantzak ez direla borondate onaren ondorio hutsak, baizik eta botere-harremanak eraldatzeko beharrezkoak diren egitura politiko eta afektiboak (Lorde, 1984; Puar, 2007; Segato, 2016). Aliantza onek —feministak, antifaxistak, euskaltzaleak,

antirrazistak edo komunitarioak— subjektuak ez ezik iruditeriak ere eraldatzen dituzte.

Oñatiko LGTBIQ+ komunitatearen inguruan sortzen ari diren sare eta mugimenduak joera horren kokapen konkretua dira. Ezagutza partekatuak, konfiantza, elkar zaintza eta instituzioekin edo herri-eragileekin eraikitako zubiak identitate disidenteak sendotzeko oinarri dira. Horregatik, kapitulu honek ez ditu soilik zailtasunak aurkeztuko, baizik eta Oñatin garatzen ari diren eta etorkizunean indartu daitezkeen estrategia eta aliantza politikoen ildo nagusiak aztertuko ditu.

5.3.1.

ERREFERENTEAK

Oñatiko kasuan, bereziki gazteek azpimarratu dute erreferente errealak izan dituztela, eta hori ez da gutxietsi behar. Jadanik azaldu dugun bezala, herriko bollerak erreferente afektibo eta politiko bihurtu dira, ikusgarritasunaren eta ausardiaren sinbolo, eta gazte askorentzat haien presentziak herrian bizitzeko baldintzak erraztu ditu. Era berean, esparru instituzionalean eta politikoan ikusgarriak diren homosexual eta marikak ere aipatu dira, LGTBIQ+ errealitatei buruzko diskurtso zabalagoak eta zilegiagoak sortzen lagundu dutelako.

Hala ere, askotan erreferenteak herritik kanpo bilatu behar izan dira. Hala nola, sare sozialen bidez, bestelako herrietan edo nazio mailako figuren bitartez. Horrek erakusten du oraindik bertako erreferente kolektiboak sendotzeko beharra dagoela. Oñatiko LGTBIQ+ komunitateak hori badaki, eta bere erreferente propioak aldarrikatzen hasi da, herriko memoria feministaren eta lesbianen bidez, eta komunitatearen esperientziak dokumentatuz eta ospatuz. Ariketa horiek funtsezkoak dira memoria kolektiboa berreraikitze eta belaunaldien arteko transmisioa bizirik mantentzeko.

Erreferenteek, beraz, ez dute soilik sinbolismoa ordezkatzeko, bizitzak bizigarri bihurtzeko azpiegitura sozialak dira. Herriko bollerek, aktibistek eta ikusgarriak diren LGTBIQ+ pertsona askok egindako lana ez da soilik ausardiaren adibide, baizik eta komunitate oso baten bidea errazten duen oinarri. Erreferenteen aitortza eta zaintza egitea ez da oroimen ariketa hutsa, etorkizun partekatuaren baldintza bat da.

5.3.2.

BIZITZA SAREAK

Oñatiko testuinguruan, mugimendu feministak eta lagun-sareek izan duten rola funtsezkoa da LGTBIQ+ komunitatearen bizitzak bizigarriagoak bihurtzeko. Mugimendu feministak zaintza, sororitatea eta borroka intersektionalaren kulturak landu ditu urteetan zehar, eta horri esker, komunitateak familia propioak eta harreman-eredu alternatiboak eraiki ditu. Espazio hauek ez dira teorialik sortzen, baizik eta eguneroko praktikan. Besteak beste, zaintza partekatua, konfiantza eta elkarrekin bizitzeko modu berriak dira askapenaren oinarri.

Bestetik, lagun-sareek eta harreman afektibo-politikoek babes eta indar handia eskaintzen dute. Familia nuklearretik kanpo, LGTBQ+ pertsonak beren hautatutako familiak sortu dituzte, non lagunak, aktibistek eta kideek elkar zaintzen duten. Sare horiek ez dira soilik intimitate emozionaleko guneak, baizik eta bizitza kolektiboaren azpiegitura politikoa, erresistentzia eta ongizatearen zutabe nagusietako bat.

“Herriko arraroa izan arren ez naiz bakarrik sentitzen. Arraroen familia bat dugu!” (MK2)

Aliantza hauek komunitatearen giharra sendotzen dute, mugimendua zabaltzeko, armairuan dauden pertsonengana iristeko eta belaunaldi desberdinen arteko loturak ehuntzeko gaitasuna ematen dute. Oñatiko esperientziak erakusten du zaintzak ere ekintza politikoak direla, eta laguntasunean oinarritutako sareek etorkizun askeago eta transfeministago baterako oinarriak jartzen dituztela.

5.4. Plazera eta disfrutea

Azken urteotan, Oñatiko LGTBQ+ komunitateak plazera eta disfrutea bere agendaren erdigunean kokatu ditu. Diagnostikoaren prozesuan eta egindako hausnarketa kolektiboan agerian geratu da aspaldi bukatu dela plazera herritik kanpo garatu beharreko zerbait izatea; orain, komunitateak bere espazio propioetan bizi eta ospatu nahi du, desiraren, adierazpenaren eta harremanen politikak bere egunerokotasunean txertatuz.

Horretarako, plazera ez da jada kontsumoaren edo aisialdiaren logika huts batean ulertzen, baizik eta bizitza eraldatzeko tresna politiko gisa. Gorputza, afektua eta gozamen partekatua erdigunean jartzeak bestelako herri eta harreman eredu bat iradokitzen du. Plazer feministaren ikuspegitik, disfrutea botere-harremanen deseraikuntza da. Historikoki, emakumeen eta gorputz disidenteen plazerak isilarazi, moralizatu edo kolonizatu egin dira; hortaz, plazera berreskuratzea ez da kapritxo hutsa, baizik eta kontrol sozialaren aurkako ekintza politikoa.

Oñatiko LGTBQ+ komunitatearen plazerak ez dute soilik gorputzak askatuko, baizik eta iruditeria oso bat aldatuko du: desira ez da gehiago heterosexuala, zaintza ez da erruduntasunaren bidez ulertuko, eta bizitzak ez dira lanaren eta produktibitatearen menpe eraikiko. Oñatin, plazeraren pedagogiak ari dira sortzen, jaiak, topaketak eta gorputzaren adierazpenerako guneak baliatuz. Disfrutea ez da ihesa, baizik eta iraunkortasun afektiboaren eta komunitatearen sendabidearen espresioa.

Atal honetan ikusitakoek argi utzi dute Oñatiko LGTBQ+ komunitateak ez duela soilik zailtasunei aurre egiten, baizik eta etengabe ari dela bizitza modu kolektibo eta askatzaileetan berresmatzen. Erreferenteek, lagun-sareek, mugimendu feministarekin eraikitako aliantzek eta plazeraren pedagogiek erakusten dute komunitateak baduela bere askapenerako azpiegitura propioa. Estrategia horiek ez dira aparteko keinuak; eguneroko praktikan txertatutako erre-

sistentzia modu finak dira, komunitate baten bizigarritasuna errotik eraldatzen dutenak.

Hala ere, estrategiak eta aliantzak ez dira amaitutako egitura bat, baizik eta etengabe berritu beharreko dinamika bizia. Egitura politikoak, zaintza-sareak eta erreferenteak sendotu diren heinean, galdera berriak irekitzen dira. Zer egin behar da hurrengo urteetan sare horiek ez soilik mantentzeko, baizik eta herrian eraldaketa sakonagoak eragiteko? Nola bihurtu gaur existitzen diren praktikak instituzioekin, hezkuntzarekin, ekonomiaren egiturekin eta espazio publikoarekin lotuko dituen agenda politiko koherente batean? Galdera horiei erantzuteko, hurrengo atalak Oñatin garatu daitezkeen norabide estrategikoak bilduko ditu, komunitatearen ahotsean eta diagnostiko honen ikasgaietan oinarrituta.

LGTBIQ+
diagnostikoa

“Oñati tradizionala da,
baina baita aktiboa ere.
LGTBIQ+ pertsonak muga
sozialak aurkitzen dituzte,
baina baita sare afektiboak eta
erresistentziako estrategiak ere.”



6 — Aurrera begira

Diagnostiko bat ez da bukaera bat, abiapuntu bat baizik. Txosten honek argi utzi du Oñatiko LGTBIQ+ bizitzak herriaren egitura sozial, kultural eta ekonomikoekin estuki lotuta daudela. Tradizio erlijiosoak, familia nuklearra, industria eta kirolaren pisua, euskararen garrantzia eta herri-mugimendu bizia, guztiak dira, aldi berean, aukera eta muga.

Ondorengo ildoek ez dute neurri zehatzen zerrenda osatzen, norabide politiko baten markoa dira, herriaren eguneroko egituretan txertatu beharreko lan-ardatz estrategikoak. Helburua ez da soilik babestea, baizik eta Oñati bera eraldatzea, LGTBIQ+ bizitzak herritartasunaren eta herri-gintzaren erdigune legitimo bihurtuz.

6.1.

Memoria eta erreparazioa

Diagnostikoan agerikoa da Oñatiko LGTBIQ+ bizitzek izan dutela —eta dutela oraindik ere— presentzia isilarazia. Sexilioak, armairuak, zurrumurruen pisua, belaunaldi arteko etenak eta aurreko bollera eta mariken ibilbideak gutxi dokumentatua daude. Horregatik da memoria ildo estrategiko bat. Iragana izendatu eta kontatzeak gaurko bizitzak legitimatzen ditu.

Memoriaren lanak bi plano jartzen ditu harremanetan. Alde batetik, bizitza disidenteeek herriaren historiako duten balioa aitortzen du —Oñatiren mapa politiko eta emozionala osatzen duen pieza gisa—; eta, bestetik, erreparazioa egiten du, isilaraziak izan diren gorputzei espazio sinboliko bat itzuliz. Memoria lantzeak esan nahi du herriak bere buruari esatea: “zuek ere beti egon zarete hemen”, eta hortik abiatzea etorkizuneko eskubide- eta bizigarritasun-politikak diseinatzeko.

6.2.

Espazioaren erabilera ez heterosexuala eta plazerra

Txostenak erakusten du espazio publiko eta sozial askok —plaza, poteoa, jaiak, kirol ekitaldiak— familia nuklear heterosexualaren eta genero rol normatiboen arabera antolatzen dutela bizitza kolektiboa. Askotan, LGTBIQ+ subjektuentzat herria familiaren parke tematiko bat bihurtzen da eta plazer disidentearen esperientzia askotan kanporatua izaten da.

Horregatik da estrategikoa espazioaren erabilera ez heterosexuala lantzea, ez soilik ekitaldi zehatzak antolatzeagatik, baizik eta herriko eguneroko eszenatokiak —plaza, tabernak, jai-guneak, kultur eskaintza— gorputz eta harreman anitzen presentziarako egokitu daitezen. Plazera eta disfrutea erdigune politikoan jartzeak esan nahi du LGTBIQ+ bizitzek ez dutela soilik pairatu edo militatu behar, baizik eta gozatu eta ospatu; horrek herriaren auto-irudia bera aldatzen du, espazio publikoan zer den normala denaren markoa zabaltzen duelako.

6.3. Tradizioaren haustura

Oñati herri tradizionala eta kontserbadorea dela azaleratu da, Corpus prozesioa, familia ereduaren zentralitatea edo jai erritualak herriaren imajinarioaren giltzarri direla. Tradizio horiek ez dira berez arazo, baina gaur egun oraindik heteroarauaren eta genero binarismoaren euskarri gisa funtzionatzen duten heinean, beharrezkoa da haiekin modu kritikoan eta sortzailean jardutea.

Tradizioaren haustura ildo estrategiko bezala ulertzeak ez du esan nahi iragana ezabatzea, baizik eta berrirakurtzea. Zein errituk eta irudik sortzen duten bazterketa, nola txerta daitezkeen ikuspegi transfeministak herriko egutegian, eta nola eraiki tradizio berriak gorputz eta identitate anitzak erdigunera ekarriko dituzten praktketan. Hemen dago gakoa. Oñatik bere burua beste modu batean irudikatzeko gaitasuna lantzea, heterosexualitatean eta genero maskulinoan oinarritutako irudi bakarra apurtuz.

6.4. Genero normatiboaren deseraikuntza

Diagnostikoan argi geratu da genero-arauek bizigarritasuna baldintzatzen dutela, bereziki bollera, marika, gorputz lodi eta trans eta ez-bitar gorputzentzat. Generoaren normatibotasunak ez du soilik intimitatea ukitzen, baizik eta hezkuntza, kirola, lana eta aisialdia modulatu.

Horregatik, genero normatiboaren deseraikuntza ez da borroka sinboliko abstraktua, baizik eta eguneroko bizitzaren antolaketan eragiten duen lan-ardatz estrategikoa. Hezkuntza, kirol egiturak, aisialdi ereduak eta iruditeria komunikatiboa berrikustea dakar. Helburua ez da tolerantzia lauso bat, baizik eta generoaren bizigarritasuna.

Haur eta gazte batek bere identitatea eta adierazpena ez izatea etengabeko arrisku edo lotsa-iturri, baizik eta komunitatearen parte legitimo.

6.5.

LGTBIQ+ politika publikoak egonkortzea

Txostenak erakusten du Oñatin badaudela aliantza eta borondate politiko garrantzitsuak — udalarekin eta osasun zentroarekin izandako harremanak eta mugimendu feministaren eta herri-mugimenduaren aktibotasuna—, baina aldi berean politika ez-heterosexualek oraindik ez dutela egitura egonkor eta zeharkako bat.

Praktika aurreratuak gehiegitan pertsonen borondate onaren edo momentuko dinamiken menpe geratzen dira. Horregatik, LGTBIQ+ politika publikoak egonkortzea ildo estrategiko funtsezkoa da. Egiturak, aurrekontuak, prestakuntza eta jarraipen mekanismoak ezartzen direnean, herriko aldaketak ez dira ekitaldi edo lege sinbolo isolatuetan geratzen, baizik eta eguneroko kudeaketaren parte bihurtzen dira. Egonkortzeak esan nahi du LGTBIQ+ ikuspegi udalaren arlo guztietan zehar-lerro gisa txertatzea, parte-hartzerako espazioak aitortu eta sendotzea eta komunitatearekin batera adostutako agenda bat mantentzea.

Diagnostikoak argi utzi du Oñati gaur-gaurkoz herri heteronormatiboa dela, bere eguneroko egiturek, jai-giroak eta imajinario kolektiboak oraindik ere heterosexualitatearen eta genero binarismoaren arabera antolatzen dutela bizitza. Baina, aldi berean, erakutsi du badela indar politiko eta afektibo bizia. Oñatiren etorkizuneko galdera, beraz, ez da ea prest dagoen LGTBIQ+ pertsonak onartzeko, baizik eta zein herri mota eraiki nahi duen haiekin eta haiengandik abiatuta.

Erantzuna praktiken bidez etorriko da, baina diagnostiko honek markatzen duen norabidea argia da: herri bizigarriago, tranfeministago, askeago eta justuago baterantz.

7—Bibliografía

- Ahmed, S. (2017). *Living a feminist life*. Duke University Press.
- Anderson, B. (1983). *Imagined communities: Reflections on the origin and spread of nationalism*. Verso.
- Azpiazu Carballo, J. (2014). *Masculinidades y cuidados: Una propuesta para la igualdad*. Emakunde.
- Billig, M. (1992). *Talking of the Royal Family*. Routledge.
- Brown, W. (2001). *Politics out of history*. Princeton University Press.
- Butler, J. (2004). *Undoing gender*. Routledge.
- Butler, J. (2015). *Notes toward a performative theory of assembly*. Harvard University Press.
- Cantú, L. (2009). *The sexuality of migration: Border crossings and Mexican immigrant men*. NYU Press.
- Connell, R. W. (1995). *Masculinities*. University of California Press.
- Del Valle, J. (1993). *Sexo y amor en Euskadi: Cultura sexual de los jóvenes vascos*. Eusko Jaurlaritza.
- Duggan, L. (2003). *The twilight of equality? Neoliberalism, cultural politics, and the attack on democracy*. Beacon Press.
- Eskisabel, I. (2008). *Euskal kultura feminista baten bila*. Emakunde.
- European Union Agency for Fundamental Rights. (2016). *Charter of Fundamental Rights of the European Union*.
- Fine, G. A. (2007). *Rumor, gossip, and urban legends*. In *The Oxford handbook of analytical sociology* (pp. 442–467). Oxford University Press.
- Goffman, E. (1963). *Stigma: Notes on the management of spoiled identity*. Prentice-Hall.
- Gorman-Murray, A. (2011). *Queer mobilities*. *Geography Compass*, 5(6), 409–420.
- Goikoetxea, J. (2021). *Matriarcado: Una crítica feminista*. Bellaterra.
- Guilló, M. (2007). *Estrategias creativas para la innovación social*. Centro de Innovación BBVA.
- Hearn, J. (1996). *Is masculinity dead?* In M. Mac an Ghaill (Ed.), *Understanding masculinities* (pp. 202–217). Open University Press.
- Labari, N. (2015). *Amor, y todas esas cosas*. Caballo de Troya.
- Lorde, A. (1984). *Sister outsider: Essays and speeches*. Crossing Press.
- Lunacek, U. (2014). *Informe Lunacek: Hoja de ruta de la UE contra la homofobia y la discriminación por motivos de orientación sexual e identidad de género*. Parlamento Europeo.
- Messner, M. (1992). *Power at play: Sports and the problem of masculinity*. Beacon Press.
- Muñoz, J. E. (1999). *Disidentifications: Queers of color and the performance of politics*. University of Minnesota Press.
- Puar, J. (2007). *Terrorist assemblages: Homonationalism in queer times*. Duke University Press.
- Puar, J. (2018). *The right to maim: Debility, capacity, disability*. Duke University Press.
- Pronger, B. (1999). *The arena of masculinity: Sports, homosexuality, and the meaning of sex*. University of Toronto Press.
- Sapiro, V. (2016). *The political integration of women: Roles, socialization, and politics*. University of Illinois Press.
- Sedgwick, E. K. (1990). *Epistemology of the closet*. University of California Press.
- Segato, R. (2016). *La guerra contra las mujeres*. Traficantes de Sueños.
- Theberge, N. (1995). *Gender, sport, and the construction of community*. In S. Birrell & C. Cole (Eds.), *Women, sport, and culture* (pp. 143–158). *Human Kinetics*.
- Wittig, M. (1992). *The straight mind and other essays*. Beacon Press.
- Williams, R. (1977). *Marxism and literature*. Oxford University Press.
- Yogyakarta Principles. (2006). *Principles on the application of international human rights law in relation to sexual orientation and gender identity*.
- United Nations. (1948). *Universal Declaration of Human Rights*.
- United Nations. (1966). *International Covenant on Civil and Political Rights*.
- Council of Europe. (1950). *European Convention on Human Rights*.
-

Urtea: 2026

Egilea: Sudergintza Koop Elk. Txikia





OÑATI
dabilen herria

LGTBIQ+
diagnostikoa

Oñatiko LGTBIQ+ diagnostikoa